

# Elkartearen Aldizkari

Nº 20. 2024

- Editoriala
- Argazki lehiaketa
- Elkartea
- Iritzia
- Kontsumo
- Bidaiak
- Eskaintzak

ta gehiago

**BBK_ ko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea**

Principe kalea, 5. 505 saila • 48001 BILBO • Tel. 94 425 57 96 • asojubibbk@gmail.com • www.asojubibbk.es

Bizkaia foru aldundia diputación foral

# EDITORIALA

Abenduan sartu gara, eta, beraz, momentu egokia da aldizkari honen bidez afiliatuen kolektiboa agurtzeko eta amaitzera doan urtean gure Elkarteak egindako ekintzen eta jardueren errepaso azkar bat egiteko.

Mutualitateen gaia konpondutzat eta itxitzat ematen dugu. Gure ustez, gure afiliatuak behar bezala artatu dira egindako erreklamazioetan, eta Foru Ogasunak dagozkion zuzenketak jaso ditu.

Orain dela gutxi, urteko bazkaria izan dugu; bertan, argazki-lehiaketako sariak banatu genituen, eta hainbat opari zozkatu genituen bertaratutakoen artean. Antolatzen ditugun ekitaldietara jende gehiago etortzea eta partaidetza handiagoa izatea gustatuko litzaiguke; horregatik, lehiaketa, bazkari, bilera eta abarretan modu aktiboagoan parte hartzeko deia egiten dizuegu.

Merindadeetan barrena egindako txangoak oso emaitza positiboa izan zuen. Hiru eguneko bidaia izan zen, eta, dirudienez, oso harrera ona izan du formula horrek; hori dela-eta, datozen txangoak ere halakoak egiten saiatuko gara. Oraintsu, Indonesian izandakoak itzuli dira, egindako bidaiarekin oso pozik. Sagardotegirako txangoak harrera bikaina eta emaitza ezin hobeak izaten ditu beti.

Aurreko komunikazioetan adierazi genizuen bezala, lege-akzioak aurkezteko aukera aztertzen ari ginen Haziako gure funtsak berreskuratzeko tratamendu fiskalari dagokionez. Kontsulta ugari egin ditugu hainbat talde juridikorekin, eta, erabaki bat hartzear geundela, ikusi dugu Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiek berrikuspen fiskaleko foru-arau baten aurreproiektua aurkeztu dutela, modu harmonizatuan. Arau horrek borondatezko gizarte-aurreikuspenari buruzko araudiaren berrikuspena jorratzen du, eta eragin nabarmena izan dezake errenta moduan jasotako prestazioen tratamendu fiskalean. Oraingoz, Bizkaiko Foru Aldundiak hartu du bere gain ekimena; aurreproiektua izapidetzen hasi da, eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren fasea zabaldu du, 2024-11-18tik 2024-12-03ra bitartean. Araua 2025eko urtarrilaren 1ean jarri behar da indarrean; hortaz, eztabaida eta negoziazio betean egongo da uneotan. Garbi daukagu beste bi aldundiek ere aurrera jarraituko dutela aurreproiektuarekin.

Oraingoz ezin dugu ezer aurreratu gure BGAEan izan dezakeen eraginaren inguruan; argitaratzeko zain gaude, haren edukia aztertzeko eta nola eragin –eta, espero dezagun, lagundu– diezagukeen ikusteko. Argitaratzen denean, beraz, jasoko dituzue gure berri eta iruzkinak. Bien bitartean, albiste bikain baten aurrean gaudela iruditzen zaigu.

Hemendik gutxira, HAZIAren gobernu-organoetako ordezkaritza-karguetarako hauteskundeak izango ditugu. Hautagaitza berri bat prestatzeko lanean ari gara jada, organo horietan presentzia handia lortu ahal izateko. Azken hauteskundeetan oso emaitza onak lortu genituen, eta errepikatu egin nahi genituzke, edota, are, hobetu. Oso garrantzitsua da organo horietan egotea, HAZIAren kontrola eta jarraipena zaintzeko. Hori horrela, parte hartzera eta gure hautagaitzaren alde bozkatzera gonbidatzen zaituztegu, eta zuen kide guztiak mobilizatzen saia zaiteztela eskatu nahi dizuegu, gauza bera egin dezaten. Boto bakoitza oso garrantzitsua da.

Eguberri-jai bikainak igaro ditzazuela. Jaso itzazue gure desiorik onenak zuentzat eta zuen sendientzat.

**Zorionak eta**
**Urte Berri On!**

# EDITORIAL

Llegamos a diciembre y llega el momento de aprovechar la publicación de esta Revista para saludar al colectivo de afiliad@s y hacer un rápido repaso de las acciones y actividades de nuestra Asociación en el año que termina.

Damos por solucionado y cerrado el tema de las Mutualidades. Pensamos que nuestros afiliad@s han sido atendidos en las reclamaciones efectuadas y recibidas las oportunas rectificaciones por parte de la Hacienda Foral.

Recientemente celebramos la comida Anual en la que se hizo entrega de los premios del concurso de fotografía y se efectuaron varios sorteos de regalos entre los asistentes. Nos gustaría que la presencia y participación a estos eventos que organizamos, fuera más numerosa y por eso hacemos un llamamiento al colectivo a participar más activamente tanto en concursos, como Comidas, Asamblea, etc…

Se realizó la excursión por Merindades con un resultado muy positivo. Fue un viaje de tres días, formula que parece ha sido muy bien recibida, por lo que se intentará repetir en próximas ocasiones. Recientemente han regresado los viajeros de Indonesia también muy satisfechos con su viaje. La excursión a la sidrería siempre obtiene una acogida notable y un excelente resultado.

Como podéis recordar por comunicaciones anteriores, estábamos planteando posibles acciones legales con relación al tratamiento fiscal en la recuperación de nuestros Fondos en Hazia. Hemos realizado numerosas consultas con diferentes equipos jurídicos y ya estábamos cerca de tomar alguna decisión, cuando nos hemos encontrado con un anteproyecto de Norma Foral de revisión fiscal, presentado de manera armonizada por las Diputaciones Forales del País Vasco. Norma que aborda la revisión de la normativa sobre previsión social voluntaria y que puede afectar de manera notable al tratamiento fiscal en las prestaciones percibidas en forma de renta. De momento ha tomado la iniciativa la Diputación Foral de Bizkaia tramitando el anteproyecto y colocando el mismo en fase de audiencia e información pública del 18.11.24 hasta el 03.12.24. La norma debe entrar en vigor el 1 de enero de 2025, por lo que en estos momentos estará en plena discusión y negociación. No dudamos que las otras dos Diputaciones también sigan adelante con el anteproyecto.

De momento no queremos ni podemos adelantar nada sobre su alcance y posible incidencia sobre nuestra E.P.S.V. y estamos a la espera de su publicación, para analizar su contenido y comentar la manera en que nos puede afectar y esperemos que beneficiar. Una vez publicada recibiréis nuestras noticias y comentarios. De momento nos parece que estamos ante una excelente noticia.

Pronto tendremos elecciones a los cargos de representación en órganos de gobierno de HAZIA. Estamos ya trabajando en la confección de una nueva candidatura que nos permita conseguir una presencia importante en dichos órganos. En las últimas elecciones obtuvimos muy buenos resultados que nos gustaría repetir e incluso mejorar. Nuestra presencia en dichos órganos es muy importante para velar por el control y seguimiento de HAZIA. Os invitamos a participar e ir a votar a nuestra candidatura e intentar movilizar a todos vuestr@s compañer@s para que también lo hagan. Cada voto es muy importante.

Esperamos disfrutéis de unas estupendas fiestas navideñas. Recibid nuestros mejores deseos para vosotr@s y vuestras familias.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# ama baten | bihotza

7 urria 2024 | **por Juan Carlos Ruiz de Villa**

# Familia bakoitzak historia Bat.
## Dauka ongi etorri gure historiara

Haize leuneko egun eguzkitsu honetan, paseatzera irten naiz etxetik, beste goiz askotan bezala, eta domingotarren komenturantz zuzendu ditut pausoak. Beharbada, Donejakue bidean nagoela konturatzeko, erromes izan nintzen garaian hainbatetan bezala. Baita ere bidean aurrera joanez zelaiek eta itsasadarrak eskaintzen didaten ikuspegia ezin ederragoa delako, itsasbehera batzuetan eta itsasgora besteetan. Zoragarria beti!

Eta, horrela, goizaldeko ibilaldi lasaian erromes, komentura iritsi naiz. Haren hormetan, letra handiz, DONEJAKUE BIDEA irakur daiteke.

Museo eta Interpretazio Zentroan sartu naiz. Hantxe, mahaiaren aurrean, zentroa txukun eta maitasunez zaintzen duen gida dago. Mahaiaren beste aldean, gizon bat eta emakume bat daude eserita. Barrura sartu, agurtu, eta zentroan dauzkaten edertasunak ikusi ditut.

Irtetean berriro agurtu ditut, eta, horrelakoetan ohikoa denez, solasaldi txiki bat hasi dugu gure artean.

Bihar San Roke eguna izango da, eta gizon-emakume hauek San Roke talde edo kofradiakoak dira. Santuaren dominarekin ermitara joango direla eta han gainerako auzotar eta lagunekin elkartuko direla esan didate. Meza egongo da, eta gero festa txiki bat, dantza folklorikoekin, eta honetaz eta hartaz mintzatuko dira (gogoratzen al duzu taldea sortu genuenekoa, ze gazteak ginen…), eta jarduera ugari egongo dira, denen olgetarako.

Eta, hala, bakoitza nongoa den ari garela, bertakoak direla esan didate gizonak eta emakumeak, auzokoak direla. Arranopola! Guk bertako lagun bat daukagula esan diet, María duela izena. Gidak, irribarrez, «emakume honen alaba da», esan dit.

«Urte askotarako», esan diot emakumeari. Anaia morroskoak dituela esan zigun, gainera, zuen alabak.

«Bai, bai», esan dit andreak. Eta, jarraian:

«Beste alaba bat ere izan nuen, oso neska alai eta maitekorra, ezpainetan beti irribarrea zuena.

Zazpi urte zituela, gaixotu egin zen. Ez genekien zer gertatzen zitzaion. Ospitalera eraman genuen, eta esan ziguten bere gaixotasunak ez zuela sendabiderik. Lagun batek Madrilgo La Paz Unibertsitate Ospitalera eramateko esan zigun. Hara eraman genuen, itxaropentsu, munduko maitasun guztiarekin, eta ni Madrilen jarri nintzen bizitzen.

Neskatoak sei hilabete eman zituen La Pazen ospitaleratuta. Gelan beste paziente bat zegoen, emakume urtetsu bat, eta, bakarrik zegoenean, nire alaba harekin hitz egiten hasten zen, animatzeko eta poz pixka bat emateko. Sendagileek eta erizainek izugarri maite zuten nire alaba.

Oso gaizki jarri zenean, apaiz bati deitu genion, berarekin hitz egiteko. Bakarrik utzi genituen. Neskatoarekin egon eta gero, negarrez irten zen gizona gelatik, eta tarte bat horrela eman zuen, malkotan. "Hain zen maitagarria!", esaten zuen».

Eta nik galdetzen dut, nolako handia ote da ama baten bihotza, hainbeste urte igaro arren seme-alabak aipatze soilarekin piztu egiten baitzaizkio bihotz-begiak, eta esaten baitu: «Beste alaba bat ere izan nuen, alai eta polita. Zazpi urterekin hil zitzaidan».

Horrelako une latzetan, neure artean pentsatzen dut bizitza batzuetan oso gogorra dela. Eta, nire bihotzaren sakon-sakonetik, pentsatzen dut neskato hori lorian egongo dela, ziur, eta handik, izarren artean, irribarrez, bere ama eta anai-arrebak zaintzen arituko dela.

Ziur gutako bakoitzaren familiak izango duela idazteko moduko historia handi edo txikirik.

Maitasun guztiarekin

Juan Carlos



# ELKARTEAREN URTEKO BAZKARIA

24 azaroa, 2024 | **por asojubi**

Urriaren 30ean, asteazkena, Elkartearen urteko bazkaria izan genuen, eta 91 lagun bildu ginen. Bazkaria baino lehen, ekintza osagarri gisa, 68 lagun Bilboko Guggenheim Museora joan ginen, Hilma af Klint artista suediarraren aldi baterako erakusketa ikustera.



Bazkariaz eta konpainia onaz gozatu ondoren, Txema Múgica lehendakariak hitz hunkigarri batzuk esan zituen hildako elkartekideen omenez, eta bereziki Araceli Tamayo gogoratuz, Elkarteko kidea sortu zenez geroztik eta zuzendaritza-batzordeko partaide guztiz aktiboa. Ondoren, mutualitateen inguruko epaiaren kariaz jaso beharreko zenbatekoak itzultzeko eskatu zuten 506 elkartekideekin egindako kudeaketez mintzatu zen. IMQrekin izandako elkarrizketak ere aipatu zituen. Posta elektronikoz eman zaigu jada horien berri. Merindadeetan barrena egindako azken txangoak izandako arrakasta gogoratu zuen halaber. Horrez gain, aipatu zuen datorren urtean Haziako ordezkaritza-karguetarako hauteskundeak izango direla eta emaitza onak lortzea interesatzen zaigula. Alde horretatik, Elkartearen hautagaitza bozkatzearen garrantzia azpimarratu zuen. Eta Elkartearekin lankidetzan jardutera eta haren jardueretan parte hartzera animatu zituen bertaratuak, noski.

Ondoren, argazki-lehiaketako sariak banatu ziren, eta, amaiera aldean, opari batzuk zozkatu ziren bertaratutako bazkideen artean. Hauek izan ziren sariak eta sarituak:

- **Caprichos de la Naturaleza SL hornitzailearen laranja-kaxak**

  María Ángeles Garcia
  Angel Careaga
  José Ramón San Juan

- **CIGARS CLUB brandy-botila, Ximenez Spinola upeltegiaren opari**

  José María Morán.

- **Viajes Ikea enpresak eskainitako maleta-jokoa**

  María Isabel Alonso.
  Mikel Ortiz.

- **Bi pertsonarentzako txuleta menua BTQ-Bilbao Te Quiero jatetxean.**

  Fidel Prellezo.
  Rafael Frafueiro.
  Santiago Garrosa.

**HONA HEMEN ZENBAIT ARGAZKI, OROIGARRI GISA GORDETZEKO.**





































# Gomutak

6 azaroa 2024 **I por Fernando Urien**

Etxeko leihoak hutsune ilunak dira oroitzapenean; fatxada zartatuko pitzaduretan iraganaren distirak suma daitezke. Leiho batzuen goiko markotik kolore beltzaxkak abiatzen dira, suteren baten itzalak, iraganaren gomutak, martxoko arratsean gizon horren begitartea orrazten duen haizea bezain egiazkoak. Atetzarrak amaiera etereo bat iragartzen du barnealdeko iluntasunaren artean. Lehen solairuaren parean kokatutako ataria eta kalea lotzen dituen zubia balantzaka dabil eta haurren oinatz bizkorrak ditu amesten. Arratoi bat agurtzera irten da; adin arraroko gizona, bien bitartean, atea zabaldu eta iraganean murgildu da.

Eskailerek kirrinka egiten dute pauso bakoitzarekin, eta hormek haren haurtzaroko oihuak xuxurlatzen dituzte: «Ama, ama». Ama, entzun orduko, ziztu bizian joaten zen atea irekitzera. Mutikoa, eskailera-buruan geratu gabe, lasterka sartzen zen emakumea kantuan aritzen zen sukalderaino; trenkada higatuen artean, oraindik ere entzuten dira haren tangoak. Mahai hautseztatuaren gainean, itzalak xake-partida bat jokatzen ari dira abesti haien notekin.

Euria dator egunez eskailera osoa distira-errezel baten modura eta ostadar-kolorez argiztatzen duen kristalik gabeko argi-zulotik behera. Trenkadek, erorita jada, antzina etxe bat izan zena iradokitzen dute. Hezetasunak hoztu egiten du giroa, eta amaren besarkaden bero bitxia esnarazten. Ile luzea zeukan, gaztaina-kolorekoa, eta mutikoari, umetan, ile harekin jolastea gustatzen zitzaion.

Sagutxoak sukaldeko baldosetan barrena paseatzen dabiltza, txokoak usnatuz, eta armiarmek beren sareetan harrapatzen dute orduko haurren algara. Airean iragansoinua entzuten da eta harraskak amaren esku hezeak gordetzen ditu bere marmolen artean. Hautsez beteriko armairu-hondarrek kantuan aritzen zen emakume haren estrofak errepikatzen dituzte. Zeruan, izarrek, iraganeko irin-tantak balira bezala, haren haurtzaroko tangoak dantzatzen dituzte.

Arropa bustia garbitzeko oholaren kontra marruskatzen entzuten da. Eta sukaldeko sutegi hotzak, itoginetako argien artean, haren pentsamenduen erritmoa markatzen duten gabon-kantak xuxurlatzen ditu. Oraindik errautsa dago tximinia zaharrean. Isiltasunak dar-dar egiten du azken ikustaldi honekin berpiztu egin nahi duela dirudien iragan hartako aurrien artean. Kristalik gabeko leihoan geranio zur bat bakarrik geratzen da, hondakinen eta haien oroitzapenen hautsaren artean lore herabe bat altxatzen duela. Itzalen artean txoko bat bereizten da, eta hezetasunak haurtzaroko musika islatzen duen putzu txiki bat eratu du han.

Helduaren irisean, distira egiten dute korrika dabiltzan haurrek, eta haien barreen oihartzunek ostadarra marrazten zuten ametsetan esekitako denboran: bere anai-arrebak ziren… Dar-dar egiten diote ezpainek. Kristal hautsiko ispiluak erakusten dion irudiak itauna egiten dio: zergatik ekartzen digu gaurko hautsak hain iragan polit, bizi eta maitea?

Horma hautsian zintzilik jarraitzen du gurasoen ezkontzako argazki okreak, denboraren joanarekin kolorgetuta. Haiek ere amets egin zuten etxe horretan. Oholtzaren kurruskak ilusioak ezkutatzen ditu, eta aire-korronte batek arrastatu egiten ditu. Besaulki zaharrak, urratuta eta zikina egonik ere, amaren zahartzaroko irudia gordetzen du oraindik. Haren begirada galdu egiten zen iragan urruneko oroitzapenean. Denbora poliki-poliki igarotzen zen haren masailetatik. Gizonak, altzariaren oihala ukitzean, oraindik ere nabari du amak berezko zuen lasaitasuna.

Altzari zaharren musika-notak behin eta birritan begiratu ondoren, joate egitea erabaki du. Eskailerako barandan, arratoi bat orekak egiten jolasean dabil, baina erori egin da hainbeste hondakin atzean uzteko zailtasunak dituen gizon baten aurrean. Sabaiko egurrek karraska egin dute eta teila busti bat erori da. Eskailerako argi-zulotik dagoeneko ez da euri-tantarik erortzen, dena herrestan daraman uharra baizik.

Bere pausoekin balantza egiten duela dirudien zubia zeharkatu du. Etorbidean dagoela, zoru irmoan, trenkada bat erori da. Lurraren kontra jotzean egindako harrabotsa entzutean, itzuli egin da gizona. Beste trenkada bat erori da, eta gero beste bat. Hauts-laino batek ezkutatu egiten du garai batean etxe bat izan zena. Tangoak entzuten dira, haurren pausoen distira, etxeko ogiaren usaina, besaulki hondatuaren lasaitasuna… Haren zangoak balantzaka dabiltza hondakinen artean.

**Fernando Urien**



# Burgosko Merindadeetara txangoa

## (2004ko urriaren 15etik 17ra)

16 azaroa, 2024 | **por asociado**

**EXCURSIÓN A LA NATURALEZA, CULTURA Y GASTRONOMÍA POR TIERRAS DE LAS MERINDADES DE BURGOS EN EL OTOÑO DE 2.024.**

Podemos calificarla de excelente en cuanto a la logística y resultados.

Acogedora, en un grupo cuasi familiar, 26 peregrinos, 16 chicas y el resto de los otros… Mucha gente solo se necesita para la guerra.

Sin lluvia. Puntualmente y en un pequeño autobús de Pachín (sin publicidad) de Trespaderne, tranquilamente manejado por Carlos vía Balmaseda nos dirigimos hacia Frías, dominios de Rafa López, donde nos recuperamos con un cordial amaiketako, en un "agradable apeadero". Ocasión propicia para menesteres, repostajes, estiramientos y otras tareas.

Seguidamente tras este breve paréntesis nos dirigimos a Tobera (barrio de Frías) donde visitamos la ermita tardo-gótica de Santa María de la Hoz la cual, parece se talló con la misma piedra de toba dentro de la gran concha que la cobija. Menuda pero que en su tiempo acogía a constantes peregrinos del camino de Santiago.

Junto a ella, un pequeño humilladero y un sencillo puente romano con un gran arco que salva el río Molinar, de discreto caudal, pero suficiente para presenciar el pueblo de las "Mil Cascadas" que pregonan y que jalonan el camino contiguo, bajando hasta Tobera que presenta un múltiple y restaurado caserío, estando algunos de ellos blasonados. Resultan notables los numerosos manantiales y fuentes que discurren por las Merindades aportando caudalosa hidalguía al Ebro.

Dice la leyenda que por este camino pasaba un correo real, al que le salió una serpiente gigante al cruzar el rio. El caballo se encabritó desbocando al jinete. Éste se encomendó al Santo Cristo de los Remedios y milagrosamente salió ileso del accidente, lo que motivó el mandato de la construcción del puente junto al pequeño humilladero.

### No todo son casas blasonadas.

Después de tanto bajar y subir cuestas, senderos, caminos, escaleras y trochas, tras este breve pero interesante compás nos acercamos a Oña para visitar el Centro de Interpretación del Parque Natural Montes Obarenes.

### Centro de Interpretación del Parque Natural Montes Obarenes.

Ubicado en la reformada "antigua vaquería del Monasterio" y dividida en tres áreas diferenciadas por plantas.

En la baja, la recepción con una extensa exposición con recursos fotográficos, dioramas y paneles tácticos, muy didácticos e interactivos para conocer los entresijos y la naturaleza en el Parque.

En la siguiente una galería con un espléndido mirador con vistas hacia el desfiladero del Oca y una curiosa sala de exposiciones teniendo una parte dedicada a los sonidos y aromas que se producen en el Parque Natural.

Más arriba dispone de una amplia biblioteca y talleres.

Tuvimos un recorrido donde nos dieron una interesantísima charla sobre las características, variada naturaleza y microclimas del parque así como de la gran diversidad de especies vegetales y animales que acoge el mismo.

Me sorprendió el razonado análisis del guía, que no le diera importancia al cambio climático, "Que la humanidad desaparecería, pero que las especies animales y vegetales sobrevivirían a las temperaturas y climatologías diversas mudando a otras formas." ***No sé si a los humanos nos consideraría como animales… pero… ¿No podremos evolucionar al igual que el resto de la naturaleza de la que igualmente formamos parte?***

***Me ha dado a pensar…. lo veremos?…***

Fuera ya, contemplamos las grandes piscinas donde antiguamente el cenobio cultivaba truchas para su sustento y varias singulares esculturas con materiales recogidos en la propia naturaleza

Seguidamente retornamos hacia Oña y de nuevo a través de Trespaderne y el Valle de Tobalina, por cierto mi abuela materna era de Lomana, (pedanía del Valle), nos dirigimos hasta Frías para mitigar tanto trasiego.

El camino es ciertamente sinuoso y en ocasiones estrecho.

Una vez aparcado el bus, subimos hasta el castillo Ducal o también de los Velasco, Siglos XII y XIII, por la empedrada calle donde vimos las diferentes casas, bien mantenidas y en sus fachadas Sur, presentan una estampa de casas colgadas desafiando la gravedad.

Con apenas tres centenares de vecinos está catalogada como la ciudad más pequeña del mundo, mundial!!!. Título otorgado en 1435 por Juan II de Castilla.

Desde lo alto contemplamos la extraordinaria vista del valle y puente romano, curiosamente fortificado en su centro. Breve visita al castillo y obligada estación para el aperitivo en las terrazas de la plaza principal.

Puntualmente a las 3 nos acomodamos en el Restaurante Ortiz para saborear un soberbio menú. Croquetas de hongos, langostinos plancha y exquisita morcilla, preludio de un excelente lechazo aunque algunos prefirieron la merluza rellena en salsa de marisco!!!. Conocéis el dicho "de la mar el mero y de la tierra el cordero" y estando en Castilla, pues… Postres, cafés, aguas y vinos generosamente escanciados. Vamos un festín para recordar.

Tras esta pitanza nos llevaron al Hostal Merindades de Villarcayo.

Tarde lluviosa, ligera pero tenaz. Breve descanso un poco antes de la cena. Vamos todo muy espartano y ascético!!!!

Ya anocheciendo nos dirigimos al Restaurante" La Tabla" en Cigüenza distante 3 km. Unos paseando para hacer hambre y otros cómodamente en el buseto.

En el paseo, descubrí ostentosos y vetustos edificios, alguno ilustremente blasonado en venta y por otro lado una numerosa y variada cantidad de modernas viviendas unifamiliares que hay de camino. Se ve que hay "varilla" entre los "Villarcayenses".

Cena generosa con ensaladas de bacalao, pescado y carrilleras aunque un raro se decantó por los huevos fritos. Bien regada, en un amplio comedor y ágilmente despachados. Para las 11 retornando al Hotel en pequeñas furgonetas dado que había que respetar el horario de los choferes.

## DIA 16 MIÉRCOLES.

Después de un discreto desayuno a las 10 y media nos recogimos en la butaquitas del autobús manejado por Rafa y amarraditos en una mañana húmeda, de leve llovizna, aunque luego escampó.

Partimos hacia el Valle de Manzanedo donde se encuentra el monasterio de Rio Seco, distante 10 km. Carretera estrecha y más sinuosa que las anteriores bordeando por la izquierda el joven Ebro hasta un ligero aparcamiento. Caminando 500 m de cierta rampa llegamos al pie del edificio.

Nos esperaba Chelo, experta guía e integrante del colectivo ¨Salvemos Rioseco¨ que nos dio las oportunas explicaciones tanto históricas como arquitectónicas .

Según nos ilustró en su origen estuvo habitado por los Cistercienses Monjes Blancos, pero esta comunidad no estuvo siempre en este punto sino que fue trasladándose a principios del siglo XII desde Quintanajuar a Monte de Oca, y a mediados del XIII después de otra nueva mudanza se aposentaron en este último lugar de Rioseco.

Explicó que la comunidad estaba regida por una veintena de monjes pero que llegaban al centenar de habitantes entre legos, novicios y criados. Los primeros se dedicaban a orar y los restantes a las tareas de labranza y el ganado. Creo que esto viene a cuento con lo que apostillaba mi abuelo. "dice padre que vayáis a cuidar la huerta, que a la tarde iremos todos a merendar"

Fue el nacimiento cultural de la zona, atrayendo a nuevos colonos para trabajar y transformar la comarca creando un centro tanto espiritual como social.

Atraídas por este trajín llegaban familias de colonos y trabajadores que cuidaban de las diversas granjas y molinos que surgieron dados los múltiples arroyos y pendientes existentes, fundando batanes destinados a producir telas a partir del esquile de lana de oveja.

La explotación agrícola y ganadera era singularmente ejemplar, tenían cultivos variados de: frutales, gramíneas y como no! viñedos,

Ganado de todo tipo pero principalmente lanar, aunque también bovinos, caprinos y porcinos, vamos de todo lo necesario para un importante colectivo.

Sin embargo tras diversos avatares, vino el declive por la guerra de independencia, revueltas, un par de exclaustraciones y finalmente en 1835 la desamortización de Mendizabal promovió la venta de los codiciados molinos y pequeñas granjas, culminando todo, en la ruina del Monasterio.




Ermita de Santa María de la Hoz


Interior de la ermita


"Mil Cascadas" del Río Molinar


Obra con troncos del artista local Carlos Armiño


Vestíbulo del Centro




grupo


Piscinas- Depósitos – Antiguo Criadero de truchas




Simpáticas muestras de arte popular en el caserío en Tobera


"Juvenil Nobleza"

La desamortización llegó motivada por el saco de hacienda a causa de las guerras carlistas, y necesidad de reducir la deuda pública llevando a la "expropiación" principalmente de grandes propiedades tanto de la iglesia y órdenes militares como de fincas yermas, que removieron profundamente la sociedad liberalizando extensiones de terrenos y bienes.

En cuanto a lo arquitectónico nos explicó que se dan tres periodos, el Cisterciense, el Renacentista y el Barroco pero creo debemos añadir el reciente cuarto, que podemos decir el de la Rehabilitación.

El primero, sobrio Cisterciense entre los siglos XIII y XIV donde se construyó la iglesia, un pequeño claustro con una sola y una discreta sala capitular.

Posteriormente el Renacimiento propio del Siglo XVI fue la época más próspera donde se realizaron importantes obras con ampliaciones principalmente en el claustro.

Me llamó la atención la pareja de sepulturas existentes a la izquierda del presbiterio, junto al evangelio, una del noble Cristóbal Varona y la segunda una cuarta más baja la de su esposa Catalina Murueta fallecidos según figura en la lápida en 1596. Vamos que el machismo y la clase social estaban en su apogeo.

La tercera, Barroca a partir del XVII donde se materializó el nuevo claustro de doble altura, interior de la iglesia con variados detalles constructivos, molduras, capiteles, cornisas así como ejemplo, los arcos de esviaje que permiten la visión desde las capillas laterales o el notable arco abovedado por la escalera que asciende desde la zona de caballerías.

El último período, que denominaríamos de Rehabilitación se debe al colectivo "Salvemos Rioseco" formado por convecinos de los pueblos del Valle de Manzanedo y colindantes. Profesores y alumnos de institutos próximos, de poblaciones cercanas y forasteras que con entusiasmo acuden los fines de semana estivales para que renazca este patrimonio.

Ciertamente encomiable aunque es una labor titánica. Esperemos que la administración colabore en la reconstrucción porque merece la pena recuperar estos vestigios del pasado y dejar para el futuro lo que era un gran monasterio.

Las labores del colectivo son diversas, desde el desbroce y limpieza de la maleza, a la catalogación y recopilación de mampostería, y trabajos varios entre los que resaltamos el traslado y reconstrucción de un órgano donado desde Gerona o la creación de un una notable "jardín-huerto" como si de Versalles se tratara con infinidad de plantas aromáticas, macizos, arbustos y todos regados de forma natural.

Lástima que nuestro compañero y amigo Javi Campo no pudiera acudir a la cita, como tenía previsto, para deleitarnos con un recital de órgano aunque la satisfacción hubiera sido de pie. No se puede "estar en misa y repicando".

A la izquierda la bóveda nervada apuntada con la clave decorada como si de un dragón se tratara en Rio Seco.

Estos días he viajado hasta Tortosa, y curiosa e igualmente en la catedral existe este mismo tipo de acabado en la bóveda gótica con la clave y los nervios que parten de ella pintados a modo de rayos.

Terminada la visita nos dirigimos hasta Orbaneja del Castillo distante 33 km para contemplar la singular naturaleza a través de las riberas de cañones del Ebro.

Rincón encantador por no decir encantado, en las riberas del Cañón de Ebro reconocido por su belleza y singularidad.

Recientemente declarada conjunto Histórico Artístico pero ya ostentaba el título de Villa otorgado por los Reyes Católicos. Con una arquitectura popular muy renovada aunque el vecindario se extingue. La España vaciada se refleja en ella notablemente. A mediados del XIX tenía 132 "Lentejeres". Gentilicio de los vecinos. Hoy tan solo 52.

En el centro se localiza la Cueva del Agua, por donde surge el arroyo que tras discurrir por el pueblo, se canaliza hacia la antepara de un antiguo molino, y luego se despeña formando unas graciosas cascadas que descienden mansamente formando terrazas hasta el Ebro.

Astiro-astiro jalonamos los 139 escalones que separan la carretera de la plaza, descubriendo y fotografiando las diversas estampas de cascadas, con la antépara y el molino citado. Nos acercamos al interior de la Cueva del Agua por donde surge el arroyo. Amplia y profunda, adentrándonos un centenar de metros para contemplar como fluye el agua por paredes y techos cuidando el caminar, lógicamente muy irregular con peligro de resbalones.

No presentaban ninguna estalagmita ni estalactita dado que en ocasiones el agua inunda la cavidad y arrasa estas formaciones.

Una leyenda dice que «a una pastora se le cayó un ovillo de hilo en el agua y se metió tras él, saliendo por Orbaneja del Castillo"
Leyendas…

Hay muchas más cuevas en el entorno por las formaciones kársticas y como más importantes las del Níspero y la del Barbancho de las que están exploradas más de 2 km. Pero como era ya la hora de explorar el "Restaurante el Rincón" y no cavernas… nos adentramos al primer piso para saborear un calórico festejo.

Las manos de ministro estaban de diez! Doy fe, y el solomillo me han certificado que no recordaban haber catado mejor y tan jugoso, jamás. PURA MANTEQUILLA!!!!

Tras esta colación nos recogimos al bus esta vez por la calle apta para los vecinos motorizados, más tranquila que las escaleras.

Nuevamente siguiendo la margen izquierda del Ebro nos paramos a contemplar la quebrada desde un mirador. Una panorámica espectacular con una naturaleza desbordante. Al rio le ha costado unos millones de años ir tallando las rocas pero al final ha conseguido un paraje excepcional con una variedad de fauna y flora excepcionales.

La profunda garganta dada su escarpada pendiente dificulta la entrada del "homo sapiens" y encierra en su interior un verdadero paraíso animal y botánico. Baste un ejemplo: la existencia de nutrias se debe a que este mamífero solo vive en aguas exquisitamente limpias, pero hay de todo. Rapaces como: buitres, águilas, búhos, etc que anidan y dominan el cañón. Abundan los corzos, garduños, jabalíes, etc.

En cuanto a flora lo que se quiera, encinas, enebros, hayas, tejos, acebos, serpentean por las laderas. Y en el cauce abundan los chopos y sauces.

A lo lejos vimos Cortiguera, donde se rodó la película "El disputado voto del Sr. Cayo" film inspirado en la novela homónima de Miguel Delibes, donde se reflejaba el abandono rural y consecuentemente lo que ha originado "la llamada España vaciada". El autor, que era un cazador compulsivo, veraneó muchos años en el pueblo próximo de Sedano.


Tras esta pitanza nos llevaron al Hostal Merindades de Villarcayo.


En un magnífico comedor con buena compañía


y "generosa" cena




Recuerdo obligado del grupo


A la izquierda la bóveda nervada apuntada con la clave decorada como si de un dragón se tratara en Rio Seco.


Recuerdo del grupo junto al jardín huerto


Cascadas de Orbaneja

Retornamos hasta Villarcayo por el puerto de las mazorras presenciando el Valle de Valdivielso y tras un breve descanso en el hotel, partimos hacia Medina de Pomar donde cenamos opíparamente en el Restaurante Taxuela en un amplio y acogedor comedor. Curiosamente una de las que nos sirvieron la cena era compañera de Kutxabank en excelencia.

Cena "luxuri". Cremita de verduras, riquísimas croquetas de hongos, Txipirones encebollados exquisitos, secreto ibérico a la brasa y delicioso postre casero,

Una aparatosa tormenta nos sorprendió llegando a apagarse las luces pero rápidamente nos pusieron unas coquetas lamparillas y seguimos con la cena. Al pronto nuevamente, no sé si por la proximidad con la nuclear,

Iberdrola solucionó el problema.

## Día 17 Jueves

Después del desayuno a las 10.30 partimos hacia Puentedey localidad cercana y que en 2022 obtuvo el premio nacional como pueblo mas bonito de España,

En el trayecto llevamos a la derecha el Rio Nela y a la izquierda el carril Vía Verde de 115 km que partiendo desde Pedrosa de Valdeporres donde esta el famoso túnel de la Engaña llega hasta más abajo de Poza de la Sal pasando por Villarcayo, Trespaderne y Oña. Esta vía ocupa el antiguo trazado del ferrocarril Santander-Mediterraneo.

La construcción de esta traza con el túnel ferroviario de 7 km hoy por seguridad cerrado al tránsito así como los viaductos, contrafuertes, y estaciones fue una obra que para la época años 40 era colosal. Que labra tienen los viaductos y como están conservados. No denotan el paso del tiempo, asombroso después de tantos años. La construcción se debió principalmente a la "barata y conveniente" mano de obra que eran los presos políticos que el régimen franquista impuso.

Vista de la entrada del Túnel de la Engaña, Hoy clausurado

Llegando a Puentedey contemplamos el colosal arco de piedra tallado pacientemente por el Río Nela.

El título de Puentedey viene porque Dios fue su constructor y por eso de Puente de Dios o Puentedey.

Sobre este arco de más de 15 m altura descansan la mayor parte del vecindario y principalmente el Palacio de los Fernandez de Brizuela del siglo XVI. Con dos robustas torres de piedra de buena labrada unidas por otra construcción más liviana.

El recorrido fue, pasando bajo el majestuoso arco, le dimos la vuelta y subimos hasta la parte alta del mismo por la calleja que llega hasta el Palacio, vista de la panorámica, y nuevamente bajar donde nos esperaba el autobús que nos llevó hasta la Cueva de Ojo Guareña donde seguía acompañándonos la persistente llovizna.

Entramos encasquetados como si fuéramos a currar a la mina y tras una interesante presentación dada por un ermitaño en pantalla gigante, nos dio a saber cómo se formaron las cuevas, la antigüedad y dimensiones de las mismas. Reconoció que se perdió más de uno. Están estudiadas más de 100 km de galerías formadas tras el paso oculto de los ríos Guareña y Terma durante miles de años. Después de la presentación una guía nos ilustró de cómo practicaban los depósitos para almacenar el grano. Singulares huecos excavados en roca y posteriormente mediante fogatas, secaban y vidriaban las paredes para servir de almacén de grano preservándolo tanto del tiempo como de los saqueadores y recaudadores que…aún perduran…

Seguidamente vimos la ermita que se completó igualmente aprovechando una oquedad en el monte. Está dedicada a los Santos Tirso y Bernabé y presenta en su techo y paredes unas pinturas murales anónimas datadas unas a primeros del XVIII y otras de finales del XIX. En ellas se relatan los martirios que sufrió San Tirso para que abjurara. Le rompieron los dientes, le descoyuntaron, le escaldaron con plomo fundido, lo tiraron al mar para satisfacción de las bestias, lo partieron pero las sierras se atascaban. Vamos no podían con él. Todo un auténtico mártir pero na de na. Seguía en sus trece aunque le arrancaran lo que fuera. No probaron a que viera la serie completa de Torrente. Seguro renegaba de su fe!!!!

Terminada la visita y devueltos los cascos seguimos luchando contra la pertinaz llovizna subiendo hasta el aparcamiento donde nos esperaba el autobús para llevarnos a un merecido ¨yantar¨ en Espinosa de los Monteros, no moteros.

Localidad conocida por todos, por los lácteos, mantequillas, quesos y sobaos al igual que las carnes y morcillas dada la riqueza ganadera en la comarca.

Es una ciudad muy blasonada. Tengo oído, no sé si será cierto, que la nobleza acudía a esta plaza para solicitar amas de cría que amamantaran a sus hijos dado que las ¨ espinosiegas¨ tenían fama de detentar ¨generosas y fértiles mamandurrias¨

En el Restaurante La Mantequería, pasamos previamente por el mostrador que disponen en la entrada para, como no, acopiar la famosa mantequilla y otros souvenires para regocijo de la familia.

Tuvimos como menú sopa de pescado, alubia roja o ensalada campera. Y de ¨main courses¨ bacalao orio o entrecot. Postres, queso con membrillo o pastel de arroz casero.

Como dicen los galenos, ¨ pronóstico reservado" A cualquier monja se le escapa ¨un pedo¨

La carnicería estaba cerrada y no pudimos comprar morcillas.

Ya de vuelta una breve parada en el crucero donde nos vendieron morcillas de Villarcayo!!!!!

Retornamos a Bilbo sobre las 19 y después de breves despedidas. Partimos a casita para un merecido descanso. Estamos muy mayores.

Estaremos todos en agradecer a Rafa Lopez e Iñaki Palomar las desventuras y el currelo que han tenido. Nos han atendido estupendamente. Vamos mejor imposible y desde aquí quiero hacer llegar una ovación "grado 10ª para este par de compañeros que han estado en todo. Gora por vosotros y levanto mi copa por esta pareja excepcional.

No quiero terminar esta crónica del encuentro viajero, sin el constante recuerdo de quien fuera líder de estas "divertidas correrías", y que en esta ocasión, seguro nos hubiera acompañado como lo hacía siempre, con su entusiasmo, trabajo y simpatía que le caracterizaban.

ARACELI GOIAN BEGO!!!!

AINDU ETA AGUR GUZTIAK!!!

Jose Ignacio Segovia



# TOMASA

15 ekaina, 2024 | **por Jorge Ibor**



## SARRERA

Esta es la historia de Ramón y Tomasa. Sobre todo de Tomasa. Son nombres ficticios. Pero la historia o, mejor, la unión resultante de juntar varias historias, tiene su base en hechos reales. Desafortunadamente reales.

Ambos tenían muchas cosas en común desde que nacieron, aunque tardaron años en saberlo. Fueron hijos de la guerra, de esa guerra inútil y sangrienta entre hermanos y primos, la peor de las que puede haber. Y de la necesidad que siguió.

## RAMÓN

Familia ezkertiarrekoa zen, familia xume eta langilekoa. Bost seme-alabetako hirugarrena izan zen bera. Gerraren lehen urtean jaio zen. Aitaren taldekoek gerra galdu zutenean, familia errekan aurkitu zen, lan edo behar duina topatzeko zailtasun handiekin. Arazo gehiagorako, handik gutxira laugarren umearen zain geratu ziren.

Zenbat ordu aitak beharrean! Esan daiteke familiak igandeetan bakarrik ikusten zuela, orduan leher eginda iristen zen Ramon otorduetara, eta oro har berba gutxi egiten orduan eta sekula santan aipatu ere ez gerra madarikatua.

Ama ere etengabe beharrean. Etxea, seme-alabak, adabakiak, astiune bat zuenean jertseak egiten zituen umeak janzten gutxiago gastatzeko eta, bakarren bat saltzen bazuen, diru-sarreratxo bat gehiago… Gero, bosgarren umea, poz handia eta arazo berriak ekarri zituena: gehitu beharreko beste aho bat zen.

Ramonek beti gogoan izango zituen garai haiek: pobrezia, kale gorrian ordu asko eta eskolan gutxi… Dirua ohi baino urriagoa zenean, amak janari apur bat erostera bidaltzen zuen: esaiozu Don Eduardori kilo erdi garbantzu emateko zuri, ni ezin naizela orain jaitsi eta. Ordainduko diodala. Eta Don Eduardok, familia askoren salbatzaileak, fidantzan ematen zizkion garbantzuak. Eta batzuetan gozoki bat ere bai hain mutiko zintzoa izateagatik.

50eko hamarkadaren amaiera iritsi ziren. Gobernuak pentsatu zuen amaiezinak zirudíten langabezia eta miseria arintzeko modurik onena gazteak migratzera bultzatzea zela. Frantzia, Alemania, Suitza… Bertatik miseria kentzeaz gain, dibisak iritsiko ziren familiei laguntzeko. Ideia biribila.

Alemaniara joan zen Ramon. 20 urte inguru izango zituen. Kultura-maila apalekoa zen, baina oso langilea, eta mundua konkistatzeko gogoa zuen, “txakurrak lukainkaz lotzea” lortu guran. Berehala hasi zen beharrean herrialde hartan, hain aurreratua izaki, han ez omen zegoen-eta langabeziarik, eta ahaleginduz gero, mundu guztiak omen zuen han bere aukera. Egia zen. Eta soldata duina irabaz zitekeen. Eta familiari diru apur bat bidali.

Jakina, bakarrik zegoen han. Eta laster ikasi zuen lagunekin garagardo bat, alemanek hain gogoko zuten edari hori, hartzea atsegingarria zela. Beharrezkoa ere bai lan-egun gogor baten ostean, pentsatzen zuen berak. Baita, tarteka, etxetik gertu, aldirietan zegoen Klub hartara joatea ere. Nahiz eta horrek etxera diru gutxiago bidaltzea ekarri berekin.

Laster bidaliko zuen “putza”.

## TOMASA

Gerra beldurgarria hasi zenean, bere ama haurdun zegoen. Bere lehen umea espero zuen, izango zuen bakarra. Eta lehenengo ume hura… neskatoa izan zen.

Mundu honetara etortzea ezin izan dohakabeagoa. Gerra betean zeuden eta aita hil berria zen lehentxeago Ebroko Guduan, talde batean agintzen zutenek oso goretsitako gudua, baina oso tristea han borroka egin zuten guztientzat. Gerra galdu eta han hil zirenentzat, zer esanik ez, garbi dago. Baina irabazi zutenek ere senitarteko eta lagun asko laga zituzten han.

Garai hartarako, ama zahar samarra zen, 30 urte baino gehiago baitzituen. Talde galtzailean borrokan zebilen bitartean hildako gizon baten alarguna zen! Beraz, neketsua gertatu zitzaion alaba

aurrera ateratzea. Eta bizitza berregiten lagunduko zion beste gizon batengan pentsatzea ezinezkoa zen.

Dena oso zail jarria zen, arazo ekonomiko asko eta handiekin. Jende askori gertatzen zitzaion gauza bera.

Haren alabari ondo irakatsi zioten. Eliza eta Sección Femenina arduratu ziren horretaz. "Behar bezalako" emakumea izateko prestatu zuten, maratza, etxekoia, izango zuen senarraren mendekoa, umeak izan eta haiei kristau-hezkuntza sanoa ematera bideratua. Kulturaz eta diru-kontuez, doi-doi bakarrik, horretarako daude-eta gizonak, hori pentsatzen zuten pentsatzeko baimena zutenek.

Bitartean, amak beharrean jarraitzen zuen, eraikin ofizialak eta militarren etxeak garbitzen, zegokion doktrinamendu guztia ere irentsiz.

60ko urteen hasieran, Tomasak, lan barik, etorkizun barik, aitorlearengana joatea erabaki zuen eta Alemania irtenbide ona izan zitekeela aholkatu zion hark. Elizak beti eragingo zuen haren bizitzan.

Italiar baten jatetxean aurkitu zuen lana. Ordutegi berezia, beharra berandu samar amaitzen zuen eta. Baina herrialde hura segurua zen. Eta ez zegoen gaizki ikusia neska bat ordu haietan etxeratzea.

Egun batean gertatu beharrekoa gertatu zen: elkar ezagutu zutela. Ramonek gorteiatu egin zuen. Elkarrekin maitemindu ziren. Eta ezkondu egin ziren.

## EZKON BIZITZA

Laster izan zituzten alabak: bi, hiru urtean. Ez zuten gehiago izan. Neskak. Alemanian neurriak hartzen ziren. Tomasak, berak zekizkienak. Baina ez deabruak ekartzen dituen 'berrikeria' horiek! Alemanian zuen aitorleak ez ziokeen onartuko ere. Hobe arrisku gutxieneko egun horietarako lagatzea eta, badaezpada ere, 'atzera martxa' zegoen. Traumatiko samarra, bai, baina ez zitzaion gehiago onartzen.

Tomasak lana utzi zuen alabak hazteko. Hazi eta Jainkoak agindu lez hezi. Ez zion axolarik. Ramon ados zegoen. Prest zegoen lan gehiago egiteko. Fabrikako orduez gain, elektratresnak saltzen hasi zen etxez etxe. Xurgagailuak, mahai-tresnak, ahal zena. Tomasak burutazio bat izan zuen. Beste etorkin-familia batzuei egin zien eskaintza: seme-alabak bere etxean zainduko zizkien dirutxo baten truke. Zein bitxia: Alemanian B moduan lanean.

Bikotea zoriontsu zen. Tomasa pozik hain senar langile eta konplituarekin. Baita berak jatetxe hartan behar egiteari laga ziolako ere, berandu irteten baitzen handik; orain bere alabatxoez arduratuko zen.

Dirua aurrezten zuten. Ez espero bezainbeste, baina… Ramon ohartu zen irabazitakotik apur bat gastatzen bazuen, ez zela ezer jazotzen. Berriro ere has zitekeen garagardo bat hartzen. Emazteak ulertu zuen: oso bizimodu gogorra darama, lan asko egiten du eta hain da neketsua etxez etxeko salmenta…

Hilabete batzuk geroago Klubera itzuli zen. Ramon etxera iristen zenean, emaztea oso nekaturik egoten zen. Tomasak larunbat egokietan bakarrik nahi izaten zuen larrua jotzea eta, batzuetan, egongelan loak hartzen zuen oheratu baino lehen. Gainera, gehienetan, gogo gutxi izaten zuen. Gogoz kontra egiten zuen.

Baina ulertzen zuen senarra. Sección Femeninan ikasia zuen hori. Eta abade batek ere azaldua zion. Baita bere amaren lagun hark ere, zeinak bere aurrean justifikatzen baitzuen senarra adarrak jartzen zizkionean. Ulerkorra izan behar zuen emazteak. Gizonak horrelakoak dira eta behar dute.

Neskatilak hazten ari ziren. Auzokoenak ere bai. Tomasak ez zeukan haiek zaindu beharrik eta jatetxe batera itzuli zen lanera. Eta berriro ere berandu etxera. Orain Ramonek bazuen aitzakia garagardoen eta Klubera egindako bisiten kopurua gehitu edo emendatzeko. Tarteka, lagunek jaioterrira egindako joan-etorrietan ekarritako brandya ere astintzen zuen. Gizendu ere egin zen. Jatorduak ordena barik, lan eta parranda askoren ondorengo estresa. Eta kolesterola oso goian.

## GARAI TXARRAK

Bizitzak aurrera jarraitu zuen. Alabak hazi egin ziren. Senargaiekin hasi ziren. Nagusia alemaniar batekin. Gazteena italiar etorkin baten semearekin. Azkenean beraiekin ezkondu ziren. Eta gazteena senarrarekin joan zen, hura bere familiarekin Italiara itzuli zenean. Zaharrena han geratu zen.

Zeuzkaten aurrezkiekin, Valentziar Kostaldeko herri batean etxebizitza bat erostea erabaki zuten Ramonek eta Tomasak. Bietako edozeinen herrira joaterik ere izango zuten. Baina Tomasaren ama zendua zen eta ez zitzaion geratzen zuzeneko seniderik. Gainerakoak hiriburura joanda zeuden. Ramonek, jada guraso barik, harreman hotza zuen bere senideekin, urruntasunaren ondorioz. Bai, hobe Amparo eta Joseren etxera joan ginenean ezagutu genuen Valentziako herri hartara joatea; Amparo eta Joxe atzerritik itzuliak ziren adiskide handiak ziren.

Jakin zuten higiezinen agentziak erosketa-prezioan engainatu egin zituela apur bat, alegia, kanpokoak izateagatik eta halako ilusioz joanda, garestiago saldu ziela. Baina ez zion axola.

Eta bizitza honetan sarri gertatzen den legez, gertatu beharrekoa gertatu zen. Ramonek infartua izan zuen. Mirariz geratu zen bizirik. Osatu eta suspertu beharra zeukan, lan gutxiago egin, alkoholik batere ez eta otorduak ordenatuagoak. Eta pilula pila bat. Tomasak, jada alabak hazita, berriro laga zuen jatetxea senarra artatzeko. Behar den legez, esan zuen. Gerrikoa estutzen bazuten, aski izango zuten Alemaniako estatuak gaixotasunagatik ematen ziena.

Ramon ere hasi zen bere burua jagoten. Baina, tira, tarteka-marteka garagardotxo batek ezin gaitzik egin. Edo noizean behin lagunekin bazkari batek ere ez. Eta aldian behin Klubera joatea ere… Baina beti neurrian. Kontuz. Hasieran, behintzat. Tomasak ulertzen zuen. Beti ulertzen zuen.

Beste infartu bat izan zuen. Eta iktusa. Eta oso kaltetuta geratu zen. Bizirik iraun zuen. Baina ezingo zuen lanik egin. Ez zen gauza. Pentsioa eman zioten, eta etorkin itzuliari emandako laguntzarekin batera, aski izango zuten duin bizitzeko Valentziako kostaldean erosia zuten etxean. A zer pena alabengandik urruntzea! Eta jada inguruan zituzten bilobengandik aldentzea ere bai. Baina egoerak hori agintzen zuen. Oporretan behintzat hondartzako etxera etorriko zitzaizkien. Tomasari ilusio handia egiten zion. Pentsatzen dut Ramoni ere ilusioa egingo ziola, bere egoeran jabetzeko gai baldin bazen.

## PENTSIODUNEN BIZITZA

Ramon oso kaltetuta zegoen. Tomasak ondo jagoten zuen, gero eta maitasun handiagoz. Don Benitok, hain ondo hitz egiten zuen apaiz zoragarri hark, askotan azaltzen zion: senarra beti izan da pertsona ona, familia aurrera atera du. Jakina, gizon izateak berezkoak dituen hutsegiteekin, baina guztiz ulergarriak dira. Pena bakarra… elizkoiagoa ez izatea!

Bera, Tomasa, santua zen, abadeak ziurtatzen zion. Zeruan lekua irabazia omen zuen. Senarra, Ramon gizajoa, jagoteko eta haren alde errezatzeko obligazioa zintzo betetzen omen zuen.

Tomasa Aste Santuko prozesioetan irteten hasi zen, Kristo Berreroslearen irudiaren atzean, ortutsik, kateak herrestan eramanez horretarako indarrik izan zuen bitartean. Domeka guztietan joaten zen mezatara, baita beste egunetan ere, ahal bazuen. Eta konfesatu egiten zen, nahiz eta bekaturik ez izan. Atsegin zuen Don Benito entzutea. Hain zen ona eta santua gizon hura!

Etxeko eginbeharrez gain, egunero ateratzen zuen paseatzera senarra, gero eta ezinduago eta hondatuago zegoena. Gurpildun aulkian eroaten zuen. Amparo etorri zitzaien bisitan lehen hilabeteetan. Gero… Udan, inguruko etxebizitzak beterik egoten ziren. Tomasa emakume ona zen. Lagun asko agertu zitzaizkion, eta haiek hirira ohiko bizilekura itzultzen zirenean, udako etxeko giltzak ere lagatzen zizkioten, arazoren bat gertatuta ere. Izan ere, uztaila eta abuztua igarotzen zirenean, ia inor ez zen geratzen inguruan. Jakina, erosi aurretik, herri hura udan bakarrik ikusi zuten, eta ez zuten gehiago pentsatu.

Bitartean, Ramon okerrera zihoan buruz, baina gorputzak eutsi egiten zion."Tomasa, mirariak egiten dituzu", esaten zion Don Benitok. "Izan ere, santua zara".

Hilabete bakarti haietan itsasertzera eroaten zuen senarra eta zerumugara begira egoten ziren, sor eta lor. Senarra bere pentsamendu misteriotsuetan murgilduta, Tomasa Betikotasuna ulertu guran, itsasoa lakoa izango zen eta: mugagabea. Betikotasun hori zain edukiko zuen zoriontasunez betetzeko, eta han elkartuko zen berriro senarrarekin, Don Benitok esaten zion lez, Ramon ez baitzen hain gaiztoa, eta jada Purgatorio-aldia pairatzen ari baitzen bizi bitartean.

Eta alabak eta bilobak etxera etortzen ziren oporretan. Tira, hasieran oporraldi osoan. Baina laster hasi ziren beste norako batzuekin konbinatzen, egun gutxiago joaten. "Jakina, beste leku batzuk ere ezagutu behar dituzte" esaten zuen Tomasak, beti ulerkor. Eta bilobak hasita zeuden eragozpenak jartzen. "Izan ere, handiak egiten ari dira. Eta ezin zaie eskatu etxe honetako bizimodua hilabete bat jasatea. Triste egongo dira Ramonekin, nahiz eta beraien aitona izan. Nahikoa da egun batzuk etortzen badira eta noizean behin telefonoz deitzen badidate", esaten zuen bere artean.

Ramonek 20 urte baino gehiago iraun zuen hondartzako etxean, egoera erdi begetatiboan. Eta egunero, salbuespenik gabe, Tomasak maitasun berberaz artatu zuen.

Gau batean, kexatu gabe, sufritu barik, hil egin zen Ramon. Uztail-bukaera zen. Alabak eta bilobak berehala bertaratu ziren. Egun batzuk aurreratu zuten aurreikusitako bisita. Hileta-elizkizuna ederra izan zen, zoragarria. Don Benito, urtetsua izan arren, bikain egon zen. Malkoak atera zizkion alargunari, Ramonen ondorengoei, mundu guztiari. Ederto bete zuen bere eginbeharra. Berba hunkigarriak esan zituen.

Ramon erraustu egin zuten. Eta errautsak itsasora joan ziren.

Jende asko izan zen Tanatorioan, hiletan, biharamunean etxean bisitan. Bere koinatuetako batzuk ere bai, ez denak, haiekin gutxi hitz egiten baitzuen. Eta zein ondo portatu zitzaien asegurua, umetatik ordaintzen hasi eta Alemanian egon zirenean ere ordaintzeari utzi barik, oharkabean hain garesti ordaindua zutena. Orain paper guztiak egin zizkien.

"Ama, zu lasai", esan zioten alabek. "Dena ondo dago. Dirusarrera gutxiago izango duzu, baina, behar izanez gero, lagunduko dizugu. Oraingoz hemen geratuko zara, zeure etxean, zure lagunek oporrak amaitu arte. Eta udazkenean gure etxeetara etorriko zara. Lehenik Italiara. Gabonetan Alemaniara eroango zaitugu eta horrela denok batera pasako ditugu festak, umetan lez. Zoragarria izango da."

Irail-amaieran Italiara joan zen. Nagusia zen eta trakestuta zegoen, baina ez zen batere gaitza izan. Herriko taxilariak aireportura eraman zuen eta Zerbitzu Berezien eskuetan laga zuen. Dena ezin hobeto atera zen.

## SAKRIFIZIOZKO BIZITZA BATEN AMAIERA TRISTEA

Tomasa ongi egon zen Italian. Hasieran, behintzat. Ez zitzaion gaitz egiten alabaren auzokoekin berba egitea. "Oso antzekoak gara", esaten zuen. Baina laster ohartu zen alabaren familia ez zela bera neskatila zen garaian bezalakoa. Elkarrekin ondo moldatu arren, eguneroko arazotxoak izaten zituzten, izaera hura ez zen berak ezagutzen zuena. Gainera, ohituta zegoen Ramonen ordez pentsatzen eta berak gura zuena erabakitzen. Eta alabak, txikitan, berak esandakoa egiten zuten ia beti.

Batzuetan, traba egiten ziela sentitzen zuen orain. Eta bere etxean hobeto egongo zela pentsatzen zuen beti. Gainera, han ez zeukan zer eginik eta aspertu egiten zen. Izugarri. Lehen egunak oso atseginak izan ziren, baina orain itzuli egin gura zuen.

Gabonetan Alemaniara joan ziren. Festak oso ondo. Gero, gauza bera. Tira, ez, zerbait ezberdina. Ezin zuen berba egin beretarrak ez zirenekin. Sekula ez zen alemanez trebea izan eta ikasitako apurra ahaztua zuen azken 20 urteetan. Eta etorkin gutxi geratzen zen han, ezagunik inor ez. Gehienak itzulita edo hilda zeuden, nahiz eta askoren seme-alabek han jarraitzen zuten. Ez zen gauza bera.

Otsailean bere etxera itzuli zen. Ez zuen kanpoan jarraitu gura. Opor-egun batzuk hartu eta alabak lagundu zion bueltan. Inguruko egoitza batera joango zela erabaki zuten, auzokoak etorri arte behintzat, eta orduan joango zela bere etxera, egunez bederen.

Bakarrik, bere Ramon barik, maitatzeko eta artatzeko hurbileko barik, Don Benito barik, ez baitzitzaion egoitzara bisitan joaten hura beste abade baten eremua zelako, eta bere elizara joan ezinik urrun zegoelako, gutxi iraun zuen. Oso gutxi.

Ramonekin laster elkartuko zela pentsatuz hil zen. Martxoaren hasieran, itzuli eta egun gutxira joan zen mundu honetatik

Haren hiletan oso jende gutxi izan zen. Ez zegoen ia auzokorik urte-sasoi hartan. Egoitzan oraindik ezezaguna zen bertako gehienentzat. Alabak eta suhiak hiletan izan ziren, noski. Eta bilobetako batzuk ere bai, ez guztiak, ez baita erraza bat-batean horrelako bidaia antolatzea.

Hura ere erraustu egin zuten. Eta haren errautsak ere itsasora joan ziren. Tomasari Betikotasunaren antzekoa zela iruditzen zitzaion leku hartara. Han Ramonekin elkartuko zen, eta artatzen jarraituko zuen.

Alabek etxea saldu zuten. Balio zuena baino gutxiago ordaindu zietela jakin zuten. "Baina hauxe da dagoena", esan zieten. Eta dena ahazteko gogoa zuten. Ez ziren sekula gehiago hara itzuliko. Ez zion axolarik.

Laster inork ez zituen gogoan Ramon eta Tomasa Valentziako kostaldeko herri hartan. Don Benitok ere ez, beste arima batzuk eta beste bikote batzuk salbatu beharra zeukan eta. Alemanian ere inor ez zen haietaz oroitzen, alaba eta haien sendikoak izan ezik. Baina denbora asko zen elkarrengandik urrundu zirela, eta oroitzapen hura ere ez zen etengabea.



# Ametsa

25 ekaina, 2024 | **por Fernando Urien**

Ainhoa emakume adimentsu bat da, lanbidez arkitektoa, eta horretan jarduten du eraikuntza-enpresa batean. Begi onez ikusten dute bertan. Langileak antolatzen aritzen da, aspalditik. Ez da erraz engainatzen den horietakoa. Ez da sinestuna, ez eta fantasien laguna ere; berak arrazoia, ebidentzia eta argudio sendoa ditu gogoko. Langilea da, eta, emakume orok bezala, irudi zurrun horren atzean, ama-sena du gordeta, baina, eraikuntza-enpresan duen karrera exekutiboa ez zapuztearren, ez du sen hori mamitzerik izan.

Ostiral hartan, berandu iritsi zen etxera, eta, astean zehar pilatutako nekearen eraginez, ohera joan zen ezinbestean. Akidurak atsedena eskatu zion berehala, eta, ziztu bizian, loak guztiz harrapatu zuen Ainhoa. Lasai eta patxada ederrean lo zegoela, amets arraro bat murgildu zen bere atsedenaldian:

Gazan zegoen, kaleak hautsez eta hondakinez beteta zeudela. Espaloietan han-hemenka, kristal hautsiak eta zementu-puska birrinduak ikus zitezkeen. Zuloak zeuden nonahi, eraikinak kolpez josiak, bala-zuloak nabaritzen ziren paretetan eta fatxadetan, leiho gutxik zituzten kristal guztiak osorik, eta hiriko kaleetan, hondakinen artean, ez zebilen ia inor ere. Hautsa eta hura airean zerabilen haizea ziren inguruko apaingarri bakarrak.

Sirena-hotsa entzun zen, eta kalean zebiltzan pertsona apurrak desagertu egin ziren. Bakar-bakarrik geratu zen zementuzko korridoreen artean. Balen hots lehorrak oihartzuna sortzen zuen kale bakartiko eraikinetan. Ozen entzuten ziren bonben danbatekoak, jendearen oihuak eta hormek erortzean egindako zarata. Hautsa gandua balitz bezala barreiatzen zen kaleetan.

Ainhoa lasterka egiten hasi zen; ez zekien nora jo, noraezean zebilen, zeharo ikaratuta. Ondoko kaleetatik entzuten ziren bala-hotsez eta bonba-danbatekoez gainera, harriak, zoladura hondatua eta ia itsutu egiten zuen hautsa jasan behar zituen. Gure arkitektoak, bere burua arriskuz inguratuta sentitzen zuen une horretan, bost urte inguruko ume bat ikusi zuen bat-batean: obra-hondakinen artean zegoen, bakar-bakarrik, negar-malkotan, eta eskuekin estaltzen zuen aurpegia, metrailatik babesteko. Aldamenean, emakume-gorpu bat, beste haur baten gorpua eta heriotzaren isiltasuna zeuzkan mutikoak.  Ainhoa mutikoarengana hurbildu zen, estutu egin zuen, eta bere gorputzarekin babesten saiatu zen. Hamabi solairuko eraikin baten ondoan bonba bat erori zen, eta eraikina bera baino onddo-hodei altuagoa sortu zuen. Hedatze-uhinak hainbat metro atzerantz bultzatu zituen emakumea eta mutila. Altxatu zenean, hautsez estalita zegoen, eta alboetara begiratu zuen, urduri. Hantxe zegoen, oraindik ere, bere besoetan, haur hura, lepotik estu-estu heltzen ziola. Aurrean etxe bat ikusi zuen; txikituta zeukan atea, eta hondakinez beteta zituen barrualdea zein kanpoaldea. Birritan pentsatu gabe, hantxe sartu zen Ainhoa, umea besoetan zuela. Begizko txar batek jota balego bezala, haurra lurrean utzi orduko, sekulako burrunba entzun zen eta dar-dar egin zuen etxeak. Eta hantxe hasi ziren sabaia eta habeak erortzen, hormak arrakalatzen eta zorua dardaratzen, lurrikara handi baten erdian baleude bezala. Ama-senak bultzatuta, bere gorputzarekin estali zuen mutikoa, hura babestu nahian. Isiltasuna itzuli zenean, zaila egiten zen arnasa hartzea ere, hautsaren eraginez. Haurra eztulka hasi zen eta ikaratuta heltzen zion. Ainhoa zutitu egin zen hondakinen artetik, ur pixka bat bilatu nahian. Hautsitako hodi batetik likido-jario arin bat erortzen zen, eta tanta haiek, zorura erortzean, nolabait freskatu egiten zuten hautsez betetako giro hura. Mutikoari aurpegia garbitu zion eta ezpainak busti zizkion. Haurrak arabieraz hitz egiten zuen eta Ainhoak ezin zion ulertu; baina mutilak, guztiz ikaratuta, ez zionez hitz egiteari eta garrasi egiteari uzten, emakumeak, lasaitasuna eman nahian, ahots apalean esan zion ez beldurtzeko. Bularraren kontra estutu zuen eta musu eman zion masailean. Tarte batez horrela egon zen Ainhoa, haurra besoetan hartuta, norbait hurbiltzen ari zela nabaritu zuen arte. Orduan, oihu egin zuen, eta, dirudienez, entzun egin zuten, harriak mugitzen hasi ziren-eta.

Hondakinen artean argi-izpi bat apenas sartzen hasi zenean, Ainhoa esnatu egin zen. Gelako leihotik begiratu zuen: eguzkitsu zegoen eguna, zerua urdin-urdin; autoak hara eta hona zebiltzan kalean, eta jendea presaka zebilen, egunero bezala. Amets bat izan zen, besterik ez.

Gazan haur bat erreskatatu zuten, bonbardaketa baten ondoren etxe bateko hondakinen artean harrapatua geratu eta gero. Haurrak esaten zuen emakume bat zegoela berarekin, emakume atzerritar bat, eta ura eman ziola eta masailean musu bat eman ziola. Baina, ingurua ondo miatu bazuten ere, han ez zegoen inor.

Gazan bada bizitza salbatu dion eta masailean musu eman dion mamu bat ikusi duen mutiko bat. Gazan bada mamuetan sinesten duen mutiko bat, mamu onetan, nahiz eta Ainhoak ez duen horretan sinesten.

# Bidaia
# Loikaw - Heho (autoz) - Yangon (hegazkinez)

5 uztaila, 2024 | **por Jorge Ibor**

Ezer jan gabe nengoenez, “almax” hutsez elikatuta, nire urdaila egoera onean zegoen esnatu nintzenean. Gosari arin batek uxatu egin zituen nahigabe guztiak.

Eguna, hasiera batean, joan-etorrietarako bakarrik izango zen. Hasteko, ibilbide luze bat egin behar genuen errepidez (4 ordu ingurukoa), Hehoko aireporturaino, eta, handik, tarte labur bat hegazkinez, Yangoneraino.

Ez genekien, ordea, sari berezi bat izango genuela hain goiz jaikitzeagatik: leku zeharo interesgarriak ikusi ahal izango genituen bidaia paregabe hartan.



***kamioi***

Abiatu aurretik, ibilbiderako bi aukera eskaini zizkigun San Yuk: mendebaldekoa, egiten errazena, dena errepidez, baina paisaia hein handi batean lehendik ikusia geneukan; eta ekialdeko ibilbidea, guretzat ezezaguna eta itxuraz interesgarria. Argi zegoen: azken horren aldeko erabakia hartu genuen. 186 km eta 4 ordutik gorako bidaia genituen aurrean.

Lehenik, erregaia bota beharra zegoen. Gasolindegi batera iritsi ginen, eta alboan kamioi bat kargatzen hasi zen… Ez dakit nola azaldu ere. Kalitate onekoa ez bada ere, hobe izango duzue gure ibilgailutik egin nuen argazkia ikustea. Bitxia gidariaren jantzia.




***Azken gosaria txurroekin***

Bigarrenez gosaltzeko garaia zen, eta, berriro ere, tea hartu genuen, ohi bezala gure aurrean egin zituzten txurro edo porro batzuez lagunduta. Bikainak, beti bezala. Oso atseginak ziren bertakoak; irribarrea ezpainetan zuten beti. “Sukaldariei” argazki batzuk egin genizkien, eta, poz-pozik jarri zirenez atzerritar batzuk haien trebetasunei begira zeudela ikustean, denetarik eskaini ziguten.

Nolanahi ere, garbitasuna nahiko utzia zeukaten aspalditxotik.

Javik esan zuen komunera zihoala, pixa egitera. San Yuk esan zion komunean izana zela eta hobe zuela pixari eustea, hara ez joatea, eta herritik irtetean gelditukoko ginela nonbait, pixa landan egiteko.

Bidean aurrera egin genuen. Ustez inoiz aurkitu ezingo duzun leku horietako batean izan zen hurrengo geralekua.

Ohiko ibilbide turistikoetatik nahiko urrun dagoenez, ia-ia bertakoek soilik bisitatzen dute, martxoan egiten dituzten ospakizunetan bereziki. Gainera, zona santu bat da, eta kanpotarrak gida baten edo bertako baten laguntzaz bakarrik sar gaitezke bertara, betiere budistak badira, eta errespetuz jantzita.

Leku ezkutu batean dago, despistaturen bat bisitan joan eta ahoa bete hortz noiz geratuko zain. Kakkuko Pagodak dira.

2.500 estupa txikik baino gehiagok osatutako erlijiogunea da. Gure ikuspegiaren aurrean agertu ziren, ezin hobeto lerrokatuta, ia-ia denak desberdinak, historian une desberdinetan eraikiak (zaharrenak K.a. 300. urtekoak direla esaten da); figura txikiak dituzte inguruan, eta airean dabiltzan milaka kanpaitxo goialdean, etengabe txilinhotsa sortzen amaigabeko otoitz baten moduan.



Batzuen barrura sar zitekeen eta han, ohi bezala, Buda irudikatzen zuten eskulturak zeuden. Horietako

batean, multzo desberdin bat ikusi genuen, ia bakarra: Buda hilik, bere jarraitzaileez inguratuta, eta, haien artetik nabarmenduta, bere monjerik gogokoena, errausteko zur hezea piztea lortu zuen bakarra.



***Buda hila***

Baina ez zen hura izan bideko azken ezustekoa. Hamsi Pagoda falta zen. Beste bat gehiago izan zitekeen, baina ez. Oso hunkigarria iruditu zitzaidan, eta amaiera bikaina eman zion bidaia zirraragarri honi. Esparruko bakardadeak eta ezin konta ahala pagoda txikiek –denak urre-kolorekoak– sentsazio ikaragarri bat sorrarazi zuten gugan: oso zorionekoak sentitu ginen paregabea, handia, errepikaezina eta ia beste mundukoa den leku hau, Myanmar, bisitatzeko aukera izan genuelako.

**Ume batzuk jolasean ari ziren esparruan, oinetakoak jantzita. San Yu pazientzia handiz hasi zen haiekin hizketan, eta kasu egin zioten: esparru sakratuan, oinutsik.**



***Urrezko estupak***

Bazkaria Heho hirian egin genuen, aireportutik gertu, ikasturtea bukatu berri zuten ikasleak ziruditen gaztez betetako jatetxe batean. Menu merkea eta janari birmaniarra: egun hartan, auskalo zergatik, ohi baino gehiago gustatu zitzaidan. Agian, bidaiaren amaieran, ohitzen hasia nintzen.

Hortik aireportu txikira joan ginen. Hegazkinaren zain jarri ginen, baina berandu zetorren, bi ordu inguruko atzerapenarekin, ohar berezi batek argi uzten zuenez: herritar bat itxaron-eremu txikian hara eta hona zebilen, eskutan makila bati loturako zurezko errotulu bat zeramala, gorabehera jakinaraziz.

Aireportura sartzean, ez erretzeko eta metxerorik ez eramateko hainbat seinale ikusi genituen. Isabelek poltsan zeramana horretarako jarritako ontzi batera bota zuen.

Baina… segurtasun-kontrola pasatzean, bizkarrean zeraman motxilan beste metxero bat zeukala ikusi zuten detektagailuan. Dena aterarazi eta konfiskatu egin zioten.

Esparruaren barruan geundenean, bertako herritarrek nahi zituzten metxero guztiak zeramatzatela ikusi genuen. Terminal eskas horretan erretzen uzten ez zutenez, erre nahi zutenak pistetara irteten ziren, hegazkinen ondora.




***Hau amaitu da***

Gela sarrailarik gabeko zurezko ate baten ondoan zegoen, eta ateak ez zuen zaintzarik; beraz, inolako kontrolik gabe sar zitekeen handik pistetara. Iritsi zenean, sarbidetik 50 bat metrora gelditu zen hegazkina.

Zuzeneko hegaldi erosoa egin genuen Yangonera (Yangon AirwaysYH730 16:45-17:55). Handik Plaza hotelera joan ginen, bidaia-hasierako hotel berera.

Afaldu bitartean naten dantza tipikoa ikusteko aukera ematen zuen jatetxe berezi bat bilatzeko eskatu genion San Yuri. Esan zigun ez zela posible, hegazkinak atzerapen handia izan zuelako.

Horretaz gain, galdetu genion non eros genezakeen Myanmarreko saskibaloi-selekzioko ekipamendu bat Gorkarentzat. Dendaren izena, gutxi gorabeherako helbidea eta testu bat eman zizkigun, birmanieraz adierazten zuena zer nahi genuen, eta esan zigun zalantzarik izanez gero berari deitzeko.

Azkenean, hotelean afaldu genuen. Gaikako buffet librea zegoen: itsaskiak (gidak txipiroiak deitzen zien) eta itsasoko arraina. Lastima: produktua bikaina zen, baina oso ahula, ur gezatan egosia baitzen, eta gatzik gabea. Gainera, plantxan zerbitzatutakoa gehiegi egina eta lehorra zegoen.

Hoteleko jatetxean afaltiar gazte batzuk izan genituen ondoan, denaren premia duen herrialde bateko ume mimatuak. Mahai bateko taldetxo batek Ballantines edaten zuen janariari laguntzeko.

Berandu iritsi ginenez, afaltzen hasten eta lokaletik irteten azkenak izan ginen.

# ITZULERA – Yangon (III)

10 uztaila 2024 | **por Jorge ibor**

Bidaia diseinatu genuenean uko egin genion Likaw-etik Bilborako itzulera urrats bakarrean egiteari, dagozkion eskalekin. Horrek esan nahi zuen Hehora arte errepidetik etenik gabe joan behar genuela, handik hegazkina hartu Yangonera, aireportuan itxaron 17:55etatik (teorian) +1 egunaren 01:05ak arte, eta hegaldiak joan elkartzen Bilboraino. Izugarria. Nahiago izan genuen eguna libre izatea Yangonen atseden hartzeko eta nahi genuena egiteko.

Aurreko gauean, joan aurretik, San Yuk hotelarekin negoziatu zuen check out-a 14:00ak arte atzeratzea eta, gero, maleten bila etortzea, haiek kontsignan uzteko. Hegazkina irteteko ordura arte logela bat edukitzen saiatu ginen, atseden hartzeko, baina ezinezkoa izan zen.

Gosaldu ondoren, Gorkarentzat saskibaloiko ekipazio baten bila joan ginen gure gidak gomendatu zigun dendara. San Yuk idatzitako paper bat erakutsi genien, futboleko kamisetak eta frakak erakutsi zizkiguten, eta saskibaloikoak izan zitezkeen (ala ez) kamiseta kutre batzuk.

Telefonoz deitu zioten, eta harekin hitz egin ondoren, ez zituztela jakinarazi zidan. Senideak utzi eta guri laguntzeko prest azaldu zen (nik ezetz esan nion) eta, azkenean, 8€-ren truke erosi genuen Myanmarreko futbol selekzioaren ekipo ofiziala.



Hortik Bogyoke Marketera joan ginen edo, Scoot Market deritzona, Myanmarren egon ginen lehen egunean bisitatu genuen tokia. Goitik behera zeharkatu genuen, presarik gabe, besteak beste, lehen bisitan Begori gustatu zitzaion alkandora baten bila… baina saldu zuten.

Erosketa batzuk egin genituen, gutxi batzuk, beste toki batzuetan erositako oroigarri ugari genituen eta jada. Besteak beste, 6 zopa-koilara, hemengoen desberdinak zirelako.

Behin bakarrik erabili ditugu, kuriositatez.

Hotelera itzuli ginen azken erosketak sartzeko, dutxatu eta check out-a egitera joan ginen.

Gure kontura jan behar genuen, eta luxuzko merkataritza gune batera joan ginen, bigarren egunean bisitatu genuen Meliá hotelaren ondoan. Oso arrazoi boteretsua zegoen. 36 ºC-tan geunden ofizialki itzalean. Nik uste dut gehiago zirela. Hezetasun handia zegoen eta oso nekagarria zen kaletik ibiltzea. Eta han, klimatizagailua ongi zebilen.

Gerturatu ahala, etorbidearen amaieran Swedagoneko Pagoda ikusi genuen. Urre koloreko eguzkiaren isla, haren tamaina ikaragarria, eta muinoaren gailurrean kokatuta, ikaragarria zen.

Oker ez banago, korear janaria hautatu genuen, aina ongi gogoratzen dudana ordaindu behar izan genuen prezio altua izan zen, ohituta geundenaren ondoan. Bilbo zirudien. Aberatsen zonan geunden, zalantzarik gabe.



Zentroa beteta zegoen, birmaniar gazte pijoz gehienbat. Herrialdean dagoen minoria horrez. Askotan hitz egin dut haiez. Erdiko patioan, konplexuaren urbanizazioko luxuzko pisuak eta maila handiko autoak saltzen zituzten, eta, berriz ere, gertuko gimnasioan demostrazioak egiten zituzten.

Kafe bat hartu genuen, buelta batzuk eman genituen eta irteten saiatu ginen. Shwedagoneko Pagodara itzultze proposatu nuen, baina kanpoko berriak eta eguzki beteak ez zuen oso gomendagarri egiten. Barrura itzuli ginen.



Zertxobait gehiago hartu genuen, eta pare bat ordu geroago taxian itzuli ginen erdigunera, Sule etorbidera, Shangri -la hoteletik gertu. Kaleetan gora eta behera ibili ginen. Batean gehienbat arabiarrak ziren, dendaz zegoen beteta, eta denda bezala funtzionatzen zuten furgonetak zeuden.

Auzo honen bereizgarria zen lurreko zikinkeria ohikoari zikinkeria gehiago gehitzen diotela.

Argia piztu zitzaidan. Gogoratu nuen goizean egon ginen kirol dendatik ez oso urruti halako arropa saltzen zuen denda bat ikusi nuela begi bistaz. Hara joan ginen.

Ixteko orduan iritsi ginen, baina utzi ziguten sartzen. Hainbat solairu igo genuen eta han zeuden bilatzen genituen alkandorak eta kirol prakak. Hori bai, herrialdeko ezkutua eta izena aparte saltzen ziren. Uste dut 5,60€ ordaindu genuela dena, eta markakoa zen, guretzat ezezaguna, baina markakoa. XXL neurria, hemengo L baten baliokidea, baina birmaniarren batez besteko altuera kontuan hartuta, ez zen harritzekoa. Gorkak, bere 1,80arekin, bere selekzioan pivota izan zitekeen.

Lehen egunean Yangonen aipatu dudan dorreko jatetxera itzuli ginen afaltzera.

Oraingoan, denok izokina. Tasmaniakoa. Gozo-gozoa zegoen.

Hotelera itzuli ginen eta San Yuren zain egon ginen tabernan Gin Tonic bat edaten.

Beti bezala, garaiz iritsi zen, adostutako ordua baino zertxobait lehenago ere. Aireportura eraman gintuen, eta fakturatzeko ilaran utzi gintuen. Merezitako eskupekoa eman eta joateko eskatu genion eta hala egin zuen. Baina fakturatzea tokatu zitzaigunean iritsi zen nahasmendua, Bilbo eta Hong Kong bitarteko joaneko bidearen deskribapenean esan nuenarengatik.

## YANGON – BILBAO

Joaneko eta etorriko ibilbideak desberdinak ziren: Yangon – Hong Kong – Londres – Bilbo.

Fakturatzera joan ginenean, mostradoreko azafata ia zoratu egin zen. 6 fardel utzi genizkion, hiru bikoteko, baina makinak ezin zuen baimendu. Asko galdetu ostean, lortu zuen arazoa zein zen ulertzea. Joaneko hegaldian kabinako trolleyak gurekin eraman genituen, lau fardelen fakturazioa ekarri zuena, eta Britishek edo bere sistemak edo Birmaniako kontrolak, ez dakit, itzuleran ez zigun uzten joanekoan baino fardel gehiago fakturatzen. Kabinako trolleyak gurekin eraman behar genituen orain ere.

Azken bidaiarako hegazkineratzeko txartela ere ez ziguten eman, Londrestik Bilborako bidaiarako.

Bagenekien maletak jomugara arte zeudela fakturatuta, baina guk hegazkineratzea Londresera arte bakarrik genuen.

Lehen gaia konponduta, atzerritarren irteera-kontroletik igaro izan behar genuen pasaporteekin, bisatuekin, etab., eta handik sartu ginela egiaztatzeko.

myanmar-104Hong Kongerako hegaldira igo ginen hurrengo eguna hasterakoan (01:05 – 05:00 Dragonairrekin, KA251 hegaldia). Oraingoan bidaia oso atsegina izan zen.

Hong Kongeko aireportuan itxaron behar izn genuen. Nahiko fresko egiten zuela harritu gintuen. Dendak eta kafetegiak itxita zeuden, eta ordu horietan hegaldirik ez zegoenez, ia bakarrik geunden.

7:30ak inguru ireki zuten lehen establezimendua. Horri esker, geunden terminalean gosaldu genuen. Bi ordu eta erdiko itxarote neketsua eta aspergarria izan zen.

Hurrengo hegaldia Hong Kong-etik Londresera izan zen, Cathay Pacific Airways-rekin CX257, 09:40 – 15:00 (tokiko ordua, aurreikusitako 12h 20'-ko hegaldia). Bitxia zer nolako itzulia eman zuen. Aurreko eserlekuko bizkarraldeko pantailan ikusi genuen bezala, Beijing-etik igo, Ulan Bator-etik gertu igaro, gutxi gorabehera transiberiarraren ibilbidetik jarraitu eta iparraldetik Ural mendiak gainditu ondoren, San Petersburgo, Kopenhage eta Amsterdam-eko bertikala gainditu eta Londresera iritsi ginen.

Danimarkako hiriburuaren eta Herbehereen hiriburuaren artean bidaiatzean, gertu zegoen bidaiari bat gaixotu eta konortea galdu zuen. Amsterdamen geldituko genuela pentsatu nuen. Hegazkinaren atzeko partera eraman zuten eta berehala suspertu zen. Baina hegaldia luzatu zuen.

Londresen intzidente bat izan genuen. Hegazkina 25 minutuko atzerapenarekin iritsi zen eta, teorian, ordubete bakarrik genuen hegazkinetik irten, terminala aldatu, beste hegazkineratze-txartel bat eskuratu, segurtasun kontrolak igaro eta Bilborako hegaldia hartzeko.

Pila bat kostatu zitzaigun hegazkinetik jaistea. Beteta zoan, eta gure eserlekuak nahiko urruti zeuden hegazkinetik irteteko ateetatik.

Fingerraren irteeran, lurreko azafata bat zegoen gure izena garrasika. Gure izena idatzita zuten kartulina batzuk eman zizkigun, segurtasun kontrola arinago igarotzeko, eta esan zigun korrika juteko.



Eskuko ekipajearekin ahalik eta azkarren joan ginen, ilaran eseri ginen kontrola pasatzeko eta Britisheko mostradorera iristean beste azafata bat aurkitu genuen gure zain. Gure izenak esan zituen eta, berak eskuratutako hegazkineratzeko txartelak erakutsiz, esan zigun: "bizkor, bizkor, korrika".

Amerikako filmetan bezala, Heathroweko aireportutik 2 km. inguru korrika. Ziztu bizian. Neskak etengabe esaten zuen: "bizkor, bizkor". Eta, hara iritsi ginen, hegazkineratzeko atera…Bartzelonarako hegaldi batena. Bilbokoa galdu genuen, eta zuzenean hegazkineratu gintuzten honetan. Baina sarbide atean bertan, Bartzelona-Bolbo hegaldi baterako hegazkineratze-txartelak eman zizkiguten.

Ia hutsik zegoen hegazkin batera igo ginen eta, El Prateko aireportura iritsi ginenean, denbora bagenuen, baina ez asko zerbait jateko. Beno, a ze nolako prezioak: 3,65€ litro erdiko ur-botilarengatik. Ikaragarria.

Bilborako hegazkina, Vuelingekoa, garaiz irten eta iritsi zen. Loiun 19:00etan egon ordez 21:55etan geunden. 5 minuturengatik ez genuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izan.

Susmoa genuen maletan ez zirela iritsi. Hala izan zen. Iberiaren mostradorera joan ginen, eta gure gorabeherak kontatu genizkien, baita fardelak Londresen egongo zirelako susmoa ere, uste baikenuen ez zutela denborarik izango planen aldaketa jarraitzeko. Haien trazabilitate-sistemari esker, berehala aurkitu zituzten. Bartzelonan zeuden. Kasu egin zigun neskak ziurtatu zigun aireportu hori eta Vueling konpainia ezagunak direla hegazkintzaren inguruko munduan ekipajea galtzeagatik.

Hurrengo goizean, arazo gabe ekarri zizkiguten etxera.

# Galdutako gaztetasuna berreskuratzen

18 iraila, 2024 | **por Javier Campo**

**Egia bada ere aspaldi gordetako gauzaren bat aurkitu nahi duzunean gauza hori agertzeko modurik ez dagoela, egia da, baita ere, gauza horren bila zabiltzanean espero ez zenituen baina aspalditik falta zitzaizkizun beste gauza batzuk aurkitzen dituzula. Banekien gaztea nintzeneko gauza batzuk (argazkiak, idatziak, txostenak) etxean nonbait egongo zirela, baina, hain ondo gordeta utzi nituen, ez baitzegoen haiek aurkitzeko modurik. Orain agertu dira, beste zerbaiten bila ari nintzela.**



Eta, ahalegin handiegirik egiten ez banuen ere, bizitzan nahikotasunez moldatzeko balioko zidana ikasten saiatu nintzen urteekin egin dut topo. Poz berezia eman dit hamabost urte nituela arreta gehien ematen zidaten poesia liriko eta/edo mistikoak idazten nituen libreta bat aurkitu izanak; olerki haietako batzuk buruz ikasi behar izan nituen gainera, nire jokabide bihurriengatik zigor gisa. Han daude, nik neuk eskuz idatzita, irakasle guztiek esaten zidatenez oso polita zen letrarekin, San Juan de la Cruzen *Canciones del alma*, Arcipreste de Hitaren *Libro del buen amor,* Santa Teresa de Jesús, Góngora, Gerardo Diego, Calderón de la Barca, Espronceda, Lope de Vega, Rubén Darío, Machado anaiak, Salinas, Unamuno, haurrek hainbeste atsegin zuten Juan Ramón Jiménez, baita hain emankorra eta hain gutxi maitatua den Anonimoa egilea ere.

Hamabost urteko zein neska-mutilek du hitza beren nahierara moldatuz edertu eta landu zuten haien berri. Gaur egungo zein gaztek dakizki orduan hitzez hitz errepikatzen genuen *Canción pirata* ospetsu haren gutxienez bi ahapaldi. Zein nerabek deszifra diezaguke Góngora eta Quevedoren arteko desberdintasuna eta haien arteko etsaitasunaren arrazoia, baldin eta halakorik egon bazen. Eta, azken batean, zein irakasleri interesatzen zaio gaurko haurrek poeta entzutetsu haien izenak ikastea, beren futbol-taldearen jokalari-zerrenda errezitatzen duten modu berean, eta gutxienez haien obra esanguratsuenak irakurtzea.




Berriro irakurri ditut, eta aitortu beharra daukat hunkitu egin naizela. Batik bat garai hartan esaldi askoren esanahia harrapatzen ez nuelako, hitzek esaten zutenaz harago joaten ez nekielako, esaldi poetikoa ulertzen ez nuelako. En una noche oscura, con ansias en amores inflamada… A dónde te escondiste, amado, y me dejaste con gemido… Tras de un amoroso lance y no de esperanza falto, volé tan alto, tan alto, que le dí a la caza alcance… Apurar cielos pretendo ya que me tratáis así… Con diez cañones por banda, viento en popa a toda vela… Pobre barquilla mía, entre peñascos rota… Al olmo seco hendido por el rayo y en su mitad podrido… Ezagunak egiten zaizkizuela, baietz! Eta ozen irakurri genuenean irakasleak argitu zigun zerbaitez oroitu naiz: lehenengoak, jatorrizkoan, ez zuela **«en una noche oscura»** esaten, **«en una noche escura»** baizik; gauza bera direla, baina halaxe idatzi zuela San Juan de la Cruzek. O tempora, o mores! Zizeronek erabili zuen adierazpen hori, Katilina interpelatzeko, baina Asterixen istorioetako bitan agertu zenean egin zen ezagun. A zer garaiak! Buruz ikasi behar izan nituen, zigor gisa, apaizek nahi baino bihurriagoa izateagatik. Bestela, ez zidaten uzten gainerakoekin batera zuri-beltzeko telebista haren aurrean ikusten uzten ziguten programa bakarraz gozatzen: ***Cesta y puntos.***

Batxilergoan «letrak» aukeratu genituenok egin behar izan genuen beste gauza bat «hizkuntza hilak» ikastea izan zen: latina eta greziera, alegia. Eta klasikoen itzulpenak, hizkuntzan murgiltzeko modurik onena izateaz gain, antzinako hizlari, filosofo eta matematikari bikainenen pentsamendua esploratu eta aztertzeko modu egokiena ere baziren. Gaur egun, erabat eta behin betiko ezabatu dira irakaskuntza arautik. Eta horrela gabiltza. Ez dugu geure hizkuntza ezagutzen, gure hiztegian lehendik zeuden hitz berriak asmatzera jotzen dugu, eta ortografiari, sintaxiari eta hitzen morfologiari buruzko zalantzak sortzen zaizkigu. Latinak eta grezierak geure hizkuntza hobeto ezagutzen




laguntzen digute. Usu erabiltzen ditugun hitzen % 85 latinetik datoz, eta % 10 grezieratik. Gehien-gehienetan grezieratik sortzen den hiztegi zientifiko eta teknikoa hobeto eskuratzeko aukera ematen digu. Beste hizkuntza batzuk ikastea errazten du, berdinak baitituzte jatorria, hiztegia eta gramatika-egitura; ingelesarekin, alemanarekin, frantsesarekin edo italierarekin egiazta dezakegu hori. Gure kulturaren oinarrizko kontzeptuen jatorria eta esanahia ezagutzeko aukera ematen digute: filosofia, artea, teknika, demokrazia, errepublika, monarkia… Zentzurik gabeko etiketa soilak izango lirateke bestela. Hezkuntza humanista transbertsala eskaintzen dute, askatasun-, berdintasun- eta elkartasun-eredu direnak. Horiek guztiak ezin hobeto definituta daude antzinako erromatarren eta greziarren testuetan. Jakintsu haiek aztertzeak elementu komun asko dituen gizartea kohesionatzen laguntzen digu. Europako literatura ezagutzeko aukera ematen dute, noski, eredu haietan islatu direlako lehen poema epikoak, lehen poema lirikoak, lehen dramak edo lehen nobela beltzak. Era berean, Europako artea hobeto ezagutzeko aukera ematen dute, eta estilo artistikoei buruz ari naiz, hala nola erromanikoari, gotikoari, Errenazimentukoari, barrokoari, neoklasikoari edo mitologia klasikoa ezagutuko ez bagenu ulertuko ez liratekeen edozein museotako pinturei buruz. «Hilak» deituriko hizkuntza klasiko horiek gabe, ez genituzke ezagutuko **Sofokles, Sokrates, Aristoteles, Zizeron, Virgilio, Horazio** eta beren jakinduriaren laginak utzi dizkiguten beste hainbat egile, beren lanak latinez idatzi zituzten egile modernoagoak ahaztu gabe, **Descartes eta Newton**, adibidez.

Julio Zesarren ***De bello Gallico*** (Galiako gerrak) itzultzeko zoria izan nuen; apaingarririk gabeko latinezko prosaren adibiderik onenetakoa, hain zuzen. Denboraren poderioz, latinistek sakon aztertu ohi duten lan bihurtu da, baita latin modernoaren irakaskuntzarako testu gisa erabili ohi diren prosazko iturri klasikoetako bat ere. *Katilinarioak*, non Zizeronek behin eta berriz salatzen baitzuen Katilina, politikagintzan egindako amarruengatik. Virgilioren *Eneida*, zeinak Troiako ihesa eta Eneasen Laziora iritsi arteko abenturak kontatzen dituen. Horazioren *Odak*, non greziarren ideia filosofikoak adibidetzat hartzen dituen eta haien metrika ere erabiltzen duen (gorago 5. oda daukagu itzulita: *Laudabunt alii)*.

Eta, greziarrei buruz ari garela, **Homero** daukagu denen gainetik, bere Iliada eta Odisea lanekin. Bi epopeia homerikoen edertasuna eta betierekotasuna beren horretan mantentzen dira gaur egun, eta, bi milurtekoren ostean, lilura paregabea pizten jarraitzen dute. Ez zaizkio atzean geratzen **Sokrates, Platon, Aristoteles**, Tales Miletokoa eta ezin gusturago itzuli nituen beste batzuk. Ez da sekula iraungiko denboraren joanarekin oroimenean utzi didaten lorratza. Haien idazkien indarra eta azalpenen argitasuna eredu dira politikagintzan zintzotasunez murgildu nahi duen ororentzat. Halako kasurik ez dago gaur egun.

Hainbeste urteren ondoren nire gazte-mundura eraman nauen libreta honek nire bizitzako garai garrantzitsu bat gogorarazteko balio izan dit, jada ia galduta dauzkadan bi hizkuntza horiek ikasi izanak sen kritikoa lantzeko balio izan zidalako. Pena.

Baina ez da hori izan hautsez betetako kutxa ahaztu horretatik atera den gauza bakarra. Aspaldi horitu ziren orri batzuk ere aurkitu ditut; denborak aldatu egin du zelulosak eman zien zuritasuna, hauskor bihurtu dira, eta oso usain berezia darie. Aitak bere garaian oparitu zidan Olivetti Lettera 25 idazmakinan tekleatu nituen lerroak jaso dituzte 57 urtez. Narrazioa maite zuen literaturako irakasle batek bultzatuta ariketa gisa egin nituen hiru idazlan dira. Haietako batek Bizkaiko Aurrezki Kutxak aspaldi finantzatzen zuen Subnormalen Zentrora egin nuen bisita deskribatzen du. La Casillan zegoen, kiroldegiaren ondoan, Gordonizko zubiaren azpian ia. Gaur egun ezinezkoa izango litzateke izen hori jartzea, guztiok ezagutzen ditugun arrazoiak direla-eta; 1972an egokitu egin zuten, La Ola Hezkuntza Bereziko Ikastetxea inauguratu zutenean. Haur haiekin igarotako uneek betiko markatu ninduten; batez ere, tarte luze batez begira egon zitzaidan neskato batek, «Zer gertatzen da?» galdetzen ariko balitzait bezala. Oraindik ere gogoan ditut haren irribarrea eta nigan iltzatutako begirada garbia. Ahaztezina.



Beste idazlanetako batek kazetaritzako albiste bat garatzen du: 1968ko urtarrilaren 14tik 15erako gauean, Richter eskalan 6,4 graduko lurrikara bortitz batek Belize ibaiaren harana astindu zuen, Siziliako mendebaldeko muturra iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen ibaiaren harana. Ehunka hildako eta milaka zauritu eragin zituen, eta hamabi herri erabat suntsituta geratu ziren. Bertoko egunkarietan bost lerro eskas jaso zituen albiste horrek istorio txiki bat garatzeko bidea eman zidan: lurrikara hartan, txakur batek, bere zaunkekin, Larrialdi Zerbitzuen arreta erakarri zuen, eta, horri esker, hondakinen azpian bizirik zegoen neskato bat aurkitu zuten, baina ezin izan zuten salbatu, ospitalera iritsi eta gutxira hil baitzen. Idazlan horrek Santanderren antolatutako literatura-lehiaketa bateko 2. saria irabazi zuen. Lehen saria «eman gabe» geratu zen. Ez da sariaren dirua aurrezteko modu makala. Eman zizkidaten 200 pezetak saria jasotzera eraman ninduen taxia ordaintzeko erabili nituen.

Hirugarren idazlanak ez zuen saririk irabazi; ez zuen ezta irakaslearen oniritzia jaso ere egin. Arrantza-ontzi batek eta bere tripulazioak ekaitz baten erdian izandako borroka deskribatzen du, ontzia iraultzeko mehatxatzen duten olatuekin, kostaldetik gertu, herri osoa begira daukatela, itsaso zakarraren eta txoen arteko borrokaren aurrean familiak larrituta daudela, harik eta, denboraleari garaituz, portuan babesten diren arte, merezi bezalako harrera jasoz. Hori da gehien gustatzen zaidana. Hamabost urterekin idatzi nuen. Etenik gabe atera zitzaidan. Ez nion zuzenketa bat bera ere egin. Gaur berriro irakurri dudanean, nire bizitza osoan idatzi dudan gauzarik onenetako bat dela pentsatzen jarraitzen dut. Denbora igaro den arren, oraindik ere maite ditut une hura eta «LANDAREN».- 15 URTE gisa sinatutako orri hori lizundu hauek.




# 2024 GABONAK

7 abendua, 2024 | **por Juan Carlos Ruiz de Villa**

Berehala Gabonak izango ditugu. Berriro ere argiak piztuko dituzte hiri eta herrietan, eta jaiotzak eta Gabonetako izeiak ipiniko ditugu gure etxeetan, argiz, bolaz eta iruditxoz beteta. Turroiak eta polboroiak egongo dira supermerkatuetako irteeran eta sarreran, Gabonetan gozokiz ondo hornituta egon gaitezen.

Besarkatu egingo gaituzte, jai zoriontsuak opatuko dizkigute, Gabon gaua bakean igaro dezagula esango digute, eta ziur munduko maitasun guztiarekin egingo dutela hori guztia. Baina oso litekeena da guk gure buru helduari galdetzea: zein bakeri buruz ari da? Zein lasaitasuni buruz? Ez al duzu ikusten gure inguruan gertatzen dena? Ez al dakizu nire anaia, aita edo ama duela egun edo hilabete batzuk hil zela? Ez al dakizu gerrak daudela? Itsu al zaude? Ez al duzu ikusten, ez al dakizu…? Zein bakeri buruz ari zara? Zer ospatu behar dut, zer ospatu behar dugu?

Adiskide, bihotz-bihotzetik diotsut, orain, inoiz baino gehiago, dena ospatu behar duzula; joanak diren gure maiteek, orain gu zaintzen gaituztenek, hala izan dadin nahi dute, pozik egon gaitezen, eta ziur han goian, izarretan, dena gurekin ospatuko dutela. Eta ona izatea espero dugun gure denbora jada ez dagoelako zain egoteko, eta gure semealabek, bilobek eta gainerako familiartekoek jai hauen magia eta alaitasuna sentitzen jarraitu behar dutelako. Hazi ziren etxean Bakea eta Alaitasuna oraindik hor daudela jakin behar dute, haur guztiek behar duten segurtasun eta harmonia hori izateko.

Pentsa dezagun Eguberrietan gizaki guztiontzat Bake- eta Maitasunmezu berria dakarkigun Jesusen jaiotza oroitzen dugula.

Horregatik, lagunok, ospa ditzagun jai hauek gure maiteekin, eta izan ditzagun gogoan joan zitzaizkigun guztiak.

Maita ezazue elkar, betiko joaten den lagun bat maitatzen den bezala. Voilà, voilà, voilà

Nire maitasun guztiarekin, eguberri-jai zoriontsuak opa dizkizuet.



# Myanmar: ERANSKINAK

25 urria 2024 | **por Jorge Ibor**

### 1.- NOLA IRITSI ZEN MYANMAR GAUR EGUNGO EGOERARA?

- Sozialismoranzko Bide Birmaniarra.
  . Kasu berezia: Bortxatzaileen Batailoiak.
- Urrezko Triangelua.
- Theravada Budismoa.
- Hezkuntza-sistema eskasa eta superstizioak.



### NOLA IRITSI ZEN MYANMAR GAUR EGUNGO EGOERA EKONOMIKO ETA SOZIALERA?

Zer gertatu zen, Myanmar hain urte gutxian garapen sendoa izateko bidean egotetik aurri-egoeran dagoen herrialdea izatera igarotzeko?

Zer dela-eta izan zen Erresuma Batuarekiko independentzia (1948) lortu ondorengo demokrazia hain efimeroa eta nolatan bihurtu zen denbora gutxian diktadura militar?

Zer dela-eta jasaten du herriak, salbuespen puntual batzuetan izan ezik, hainbesteko tirania eta hainbesteko gaiztakeria?

Nire ustez, ondorioak lortzeko, beharrezkoa da bere oraintsuko iragana apur bat ezagutzea. Historialari izateko asmorik ez daukat. Dibulgatzaile apal bat besterik ez naiz, jakin-mina duena, irakurri egiten duena, galderak egiten dituena, bere ondorioetara iristen dena –batzuetan, edo askotan, okerrak izango dira beharbada–, eta egitateak ulertzen dituen moduan azaltzen dituena, erabat edo hein batean huts egiteko arrisku nabarmenarekin.

Nire ustez, sarreran azaldutako puntuak nabarmentzen dira. Haiek ezagutzea funtsezkoa da Myanmarren gaur egungo egoera neurri batean bederen ulertzeko.

### SOZIALISMORANZKO BIDE BIRMANIARRA

II. Mundu Gerra eta Koreako eta Japoniako tropen inbasio mingarri eta maltzurra gainditu ondoren, eta Maoren Txinatik kanporatutako narkotrafikatzaileak iparraldean bazterturik zeudela, herriak kolonialismoaren aurka eta askatasunaren alde egindako borrokak Askapenaren Armada miretsiaren (Tatmadaw) laguntza jaso zuen.

1948an herrialdeak independentzia lortu zuen, eta aldi demokratikoan murgildu zen eite federalistako Gobernuaren eskutik, zeina herrialde moderno baten oinarriak ezartzen saiatu baitzen, herria elikatzeko eta ongizatea sortzeko behar besteko garapen ekonomikoa bultzatuz. Nolanahi ere, ustelkeria hasi zen nagusitzen politikarien artean; batez ere, multinazional handiek ez zutelako inolako eskrupulurik bertako aberastasun natural itzelak kontrolatzeko borrokan.

Barne-mailan, zalantzarik gabe eragina izan zuen profil zeharo ezberdineko kultura- eta nazionalitate-aniztasunak. Etnia birmaniarra zen nagusi, eta gehiegikeriak egiten zituen askotan. Gobernu gaztea ordena jartzen saiatu zen, eskualde bakoitzari pixkanaka-pixkanaka autonomia handiagoa emanez, baina horrek Estatuko aparatua ahultzea esan nahi zuen batzuentzat –militarrentzat batik bat–.

1949an, askatasun irrikatua lortu eta urtebete eskasera, Alderdi Komunistako U Nu komandantearen esanetara zegoen militar-talde batek kendu egin zuen Gobernu demokratikoa. Agintariak, hasiera batean, bere ideologia gorabehera, baimendu egin zuen herrialdean atzerriko enpresak eta kapitala, ekimen eta jabetza pribatua eta turistak –kopuru mugatuan betiere– sartzea.

Armadak garai hartan puri-purian zeuden munduko mugimendu sozialisten jarraitzaile handien nazioarteko babesa zuen. Agintarien artean, 1962ko kolpearen ondoren Gobernuko presidente izango zena nabarmentzen zen, Ne Win. Bere pentsaeran, ideia marxista leninistarik gogorrenak ziren nagusi, aberatsen, multinazionalen eta

herrialde handien kapitalaren menderatzea gorrotatzera eramaten zutenak. Diskurtsoetan esaten zutenez, horrek askorentzat gorrotagarria zen kolonialismo ingelesaren garai latza gogorarazten zion herriari.

Teoria leninista gailendu zen, zeinaren arabera Estatuaren aparatua defendatu egin behar den alde guztietan zelatan dauden etsaien aurrean, nahiz eta horrek aldi baterako odola eta pobrezia ekarri. Sozialismoaren garaipenak, azkenean, eragindako kalte guztia konpentsatuko duela esaten zuten.

«Proletariotzaren diktadura» ezartzeko helburua omen zuen Gobernu totalitario berriak gogortasunez menderatu zuen herrialdea, eta horrek erabateko ustelkeriara iristeko aitzakia eman zion; hala, hondamendi ekonomiko, kultural eta moralera eraman zuen herrialdea.

Altxamendu militarraren ondorioz ipinitako agintariak ekonomia nazionalizatzeaz arduratu ziren, lehendik zeuden enpresa esanguratsu bakanak tamaina txikiko enpresa berri eta ugariago bihurtuz, autarkia ezarriz eta, beraz, inportazioak eta esportazioak debekatuz. Horrez gain, landa kolektibizatu zuten, baina hain zenez kaskarra haien praxia, munduan arroz gehien ekoizten duen bigarren herrialdea eta esportatzaile nagusia oinarrizko elikagai horren eskasia izatera eta gosea pairatzera igaro zen. Turismoa ere debekatu zuten, eta kanporatu egin zituzten GKEak eta bertan finkatutako atzerriko herritarrak.

Populismo-ariketa goren batean, gizartearen eta enpresen ordezkari guztiekiko mespretxua transmititu eta ezarri zuten herrian, batez ere gaitasun intelektuala edo ezagutzak zituztenekiko; ondorioz, masek hartu zuten boterea arlo guztietan, baita ekonomikoan ere, nahiz eta prestakuntza gutxi edo deuseza izan. Modu horretan, masen babesa jaso nahi zuten, haien ideia erradikalak inposatu ahal izateko.



Hala ere, erlijioa bultzatzerakoan –zehazki, Theravada budismoa–, maxima marxista bat apurtu zuten. Herritarren artean jarraitzaile gehien zituen erlijio hura muturrekoagoa bihurtu zen eta funtsezkoa izan zen herria lokartzeko.

Denboraren joanak aukera eman zuen bitartean, estatukolpearen ostean sortutako Batzorde Iraultzaileak, elite militarreko 23 kidez osaturikoak, botere guztia monopolizatu zuen: bertako kideak soilik izan zitezkeen Gobernuko kide.

Mugimendu horri oinarri sozial bat emateko, Birmaniar Programa Sozialistaren Alderdia sortu zuten, zeinaren kupula itxian Batzorde Iraultzaileko kide mugiezinak eta beste gutxi batzuk besterik ez zeuden. Bitxia bada ere, hiru maila zeuden alderdi horretan, eta ia afiliatu guztiak –sartu baino lehen iragazki zorrotzak igaro zituztela– maila horietatik baxuenean geratu ziren, militante aktibo izateko izangai gisa sailkatuta geratuz betiko.

Sozialismoranzko Bide Birmaniarrak sozializatu egin zituen pobrezia eta ezjakintasuna, eta bere elite izugarriak aberastasuna eta boterea eskuratu zituen gizartean, lider budistekin batera.

1988an, mugimendu hori ahuldu egin zen aldi baterako, gizartean piztutako iraultza baten ondorioz; alabaina, odola eta sua tarteko, beste kolpe militar batek berehala itzalarazi zuen iraultza hori. Agintari berriek herrialdea espoliatzen eta kontrolatzen jarraitzea erabaki zuten, jada mozorro politikorik gabe.

Militarrek eta haien ondorengo kolpistek –guztiak birmaniarrak zirela esan genezake– herrialdeko aberastasun natural izugarriak hierarkiaren artean banatzea beste kezkarik ez zuten izan.



Agintari berriak herritarren artean oso zabalduta dagoen superstizioan oinarritu ziren, eta, hala, xamanak, igarleak, astrologoak eta ameslariak ipini zituzten aginte-postuetan; askotan, gainera, zegokion diktadorearen eta haren ministroen arteko tarteko maila bete zuten halakoek.

Azken batean, armadako buruzagiek ez diote inoiz herrialdean agintzeari utzi, dela zuzenean, dela demokrazia zelatatuaren aldi laburretan kontrolatzaile gisa jardunez.

Ezinezkoa da gizarte honetan –beste gizarte askotan bezala– egin duten eta egiten jarraitzen duten gaizkia laburbiltzea. Edo, salbuespenak salbuespen, jaso dituzten laguntza budistak justifikatzea.

*2009ko maiatzaren 2an, zikloi ikaragarri batek suntsitu egin zuen herrialdea. NBEren arabera, 100.000 biktima baino gehiago eragin zituen eta 2.000.000 pertsona inguruk lekualdatu egin behar izan zuten. Myanmar blokeo latza ari zen pairatzen nazioartean, bertako diktadura ahultzeko xedearekin. Alabaina, hondamendi haren larritasuna ikusirik, gobernu eta GKE askok laguntza bidaltzea erabaki zuten, eta ez nolanahikoa. Baina agintari militarrek konfiskatu egin zituzten laguntza haiek, eta, handik denbora batera, zati bat banatzen hasi ziren, Gobernuaren zigilua ipinita, propaganda egiteko helburuarekin. Hala ere, jasotako gehiena merkatu beltzean saldu zuten, agintari asegaitzen etekinak areagotzeko.*

## THERAVADA BUDISMOA



Birmaniar herria, oso superstiziosoa izateaz gainera, guztiz erlijiosoa ere bada, eta nagusiki Theravada budismoaren jarraitzailea. Adar horrek, printzipioz, hitzez hitz aplikatzen ditu Budaren esanak, eta ez du onartzen haien inguruko eztabaidarik, kritikarik, interpretaziorik eta garai nahiz ezagutza berrietara egindako egokitzapenik. Biztanleriaren % 89 da horren jarraitzaile; beste sinesmenak gainerako % 11ren artean banatzen dira, eta horien artean dago rohingyek jarraitzen duten islamismoa.

Ez daukat argi erlijio bat den. Haien esanetan filosofia bat da, ez baitute jainko batean sinesten. Buda nola adoratzen duten ikusita, haien iritzian zer irudikatzen duen galdetzen diot neure buruari.

***Siddharta Gautama Buda Kristo aurreko VI. mendean Nepalen jaiotako printze bat izan zen, zeinak ondasun materialei uko eginez eta meditazioaren bidez lortu zuen iluminazioa.***

Deigarria da budismoak eta Budaren irudiek duten presentzia etengabe eta bizia.

Nonahi daude. Harritu egin ninduen haren buruaren inguruan behin eta berriz ikusten den «santu-aurak», kolore bizietako eta argi keinukariko LED argiez osatua. Gure gida estimatuaren esanetan, haren «superboterեak» nabarmentzeko modua da hori.

Filosofia horren helburua berraragitzeen bidez pertsona jainkotiar energian integratzea da, desira erabat alboratuz, hori baita gizateriaren gaitz nagusia; horretarako, Budaren mandatuak ditu lagun.

Dagokion pertsona, bizitzan zehar egiten duenaren arabera, animalia gisa itzuliko da hurrengo bizitzara, balantzea oso negatiboa bada –arratoiak eta bufaloak dira okerrenak–, edota maila sozial edo ekonomiko handiagoko edo txikiagoko pertsona gisa, gainerako kasuetan.

Hainbat aldiz jarraian –oker ez banago, zazpi– «txintxo portatuz gero», nirvana lortuko du, energia osoan integratzea. Horretarako, Budaren irakaskuntzei jarraitu behar zaie, esan bezala.

Etorkizuneko berraragitze baterako «kalifikazio hobea» lortu ahal izateko, funtsezkoak dira merezimenduak: pobrea denak daukan apurraren zati bat monjeei eman behar die eta nagusien esanetara egon behar du beti; aberatsa denak dirua edo ondasunak eman behar dizkie monasterioei eta pagodei; behar beste diru duenak, berriz, erlijio-eraikinak eraiki eta/edo apaindu behar ditu. Nahikoa da ekintza hori bizitzaren azken unean egitea.

Horren guztiaren ondorioz, tenplu askotan fruta edo barazki freskoz inguratuta ikus dezakegu Buda, eta bere eskulturak behin eta berriz ezartzen diren urre-xaflez apainduta, gehiagorako ez daukatenen merezimendu.

Hona hemen merezimendu horietako baten adibide bat, San Yurekin gaiari buruz hitz egitean ondorioztatu genuenaren arabera:

Langile bat behartsua da jaiotzez, oso gaizki ordainduta dago, eta egunetik egunera aberatsagoa eta zorrotzagoa den bere ugazabak oso tratu txarra ematen dio. Behargin apalak kontuan hartu behar du, lehenik eta behin, aurreko beste bizitza batean behar adina merezimendu egin ez zituelako bizi dela horrela –berea da errua–, eta bere nagusiari kontrakoa gertatzen zaiola.

Gerora bizitza hobea izateko, partekatu egin beharko du daukan apurra; horrela, askoz hobeto biziko da. Haren ugazaba, berriz, azken orduko merezimendurik egiten ez badu behintzat, zerbait okerragoan berraragituko da.



Adierazitakoa are gehiago nahaspilatzeko, nat-etan ere sinesten dute; aurreko ataletan hitz egin dut haiei buruz.

Birmaniarrek laugarren Budaren irakaskuntzei jarraitzen diete. Bosgarrena etortzeko 1.500 urte baino gehiago falta direla uste dute.

Monjeak arduratzen dira Budaren doktrina interpretatzeaz eta zabaltzeaz. Monjeek ezin dute lanik egin. Ikasi, meditatu eta apostolutza besterik ezin dute egin. Gainera,

- Goizero-goizero eltze beltz bat hartuta janari-eske ibiltzen diren nobizioei oparitzen dizkieten elikagaiak jaten dituzte. Emakumezko nobiziek zilarrezko ontzi batekin eskatzen dute dirua. Batzuetan, monjeak ere ikusten dira eskean.
- Pagoda, tenplu eta monasterioetan jasotzen dituzten dohaintzetako dirua administratzen dute, eta, haiek bizirik irauteko ez ezik, aldare hobeak egiteko eta pagoda, tenplu nahiz monasterio gehiago eraikitzeko erabiltzen dute.
- Teorian, ezin dute luxurik eduki eta ezin dute telebista ikusi, meditatzen ari direnean arreta ez galtzeko. Pobrezian eta kastitatean bizi behar dute.

Nolanahi ere, gauza jakina da ez dituztela manu horiek betetzen: askok azken belaunaldiko telefono mugikorrak eta luxuzko eguzki-betaurrekoak dauzkate, monasterioetan Interneta daukate, noizean behin alkohola edaten dute, apustuak egiten dituzte, eta «neska-lagunik» ere izaten dute. Hurrengo bizitzan ordainduko dutela esaten dute, noski. Baina, beren sinesmenak indartze aldera, gaizkia ere probatu behar dutela esaten dute. Eta, bestela, damutuko direla.

Azafrai-koloreko tunika gorri bat eramaten dute soinean, tibetar budistena baino ilunagoa, eta soilduta eramaten dute burua, Budaren aurrean apaltasun-seinale gisa. Ez da ukitu behar monjeen arropa, ez eta haien itzala zapaldu ere.



Herrialdeko pobrezia eta bertako biztanleek aurrera egiteko duten itxaropen txikia direla-eta, seme-alabaren bat seminarista izaten saiatzen dira familiak; zehazki, zortzi biztanletik batek lortzen du helburua.

Haurrak zazpi edo zortzi urte dituztenean banantzen dituzte familiatik, jai-giroan ospakizun bat egin ondoren, eta hogeita bi urte ingururekin monje bihurtzen diren arte ia ez dituzte berriro ikusten –gurasoek urtean behin edo bitan bakarrik ikus ditzakete–.

Egia da nahiko erraz baztertu ditzaketela ohiturak. Hala egiten dute hainbat urtez beren familiak baino askoz hobeto bizi ondoren, eta bizitza arruntean amestu ere egingo ez zuketen ezagutza-maila eskuratu ostean.

Azken urteotan, ingelesa ikasteko zaletasuna zabaldu da monasterioetan.

Denbora asko eskaintzen diote meditazioari. Inguruan dauzkaten arazoak alde batera utzita, gogamena zurian nola utzi praktikatzen dute. Hori lortu ondoren, eta arreta ez galtzearren, geldirik egoten dira, eserita edo etzanda, edo paseatzen ibiltzen dira, begirada oinak dauzkaten lekutik metro bat baino gehiago urrundu gabe, ez distraitzeko. Teorian behintzat.

Azpimarratu beharreko beste puntu bat da tenpluetan fededunak otoitz egiten edo kantatzen ikus daitezkeela, beste batzuk jaten edo freskagarriak edaten; mota guztietako dendak daude, baita bulegoak eta/edo kutxazainak ere, segur aski erromesen dohaintzak jasotzeko.

Azkenik, pagoda, tenplu eta monasterioetan oinutsik sartu behar da, galtzerdirik gabe, eta emakumeek begirunez jantzita egon behar dute. Emakumeek ezin diote Budari eskaintzarik egin, ez-puruak baitira. Budismo hori eta guk ezagutzen dugun berdintasuna ez dira oso ondo ezkontzen. Arestian aipatutako Burmese Days liburuan, Georges Orwellek esaten zuen budista batentzat teorian okerrena arratoi edo igel berraragitzea dela, nahiz eta, haren iritzian, emakume berraragitzea ere ez zen batere aukera ona.

*Joaquín ekarri nahi nuke gogora, «la cordera» deitzen genuena, 42 urterekin minbiziak jota hila, urtebetez pisukide izana eta Majarah Ji guruaren jarraitzailea zena. Egunero, bazkalondoan, meditatzen ematen zuen tarte bat. Bere zurrungek ederki erakusten zuten zenbateraino lortzen zuen mundutik isolatzea. Gainerakoan, pertsona sinple eta atsegina zen, lagunen laguna. Eta apostolutza-lanetan porrot egina.*



## URREZKO TRIANGELUA



«Urrezko Triangelu» izenak opioarekin du zerikusia, mitxoleta-barietate ugari lantzen baitira han. Opioa, garai batean, sendagai gisa erabiltzen zen Ekialdeko gizartean, eta, hain zen preziatua, non txinatar dirudunek urretan ordaintzen zuten haren salneurria. Hortik datorkio izena, hain zuzen ere. Besteak beste, Ingalaterra negozio horretan indarrez sartu zenean piztu zen «Opioaren Gerra».



Maoren Alderdi Komunistak opioa ekoizteko mitxoleta-laboreak pertsegitzea erabaki zuenean, txinatar nazionalistek, ekoizpen hori diru-iturri handia zenez beren erresistentzia armatuari eusteko, Myanmar eta Thailandia iparraldeko eremu basotu batera lekualdatzea erabaki zuten. «Armada galdua» deitzen zitzaien, erregimen komunistaren aurkari aktibo gehienak Taiwanen errefuxiatu zirenez hauek atzean geratu baitziren.

II. Mundu Gerra amaitzean, AEBk, Maoren politikaren hedapena geldiarazteko asmoz –gogora dezagun armada birmaniarreko buruzagiek eragin marxista zutela–, laguntza eta finantzaketa eman zizkien militar horiei, eta Gerraren Jauntxo bihurtu zituen haien agintariak.

Alde horretatik, talde armatu horietako kideek historikoki beren burua defendatu izan dute argudiatuz haiek ez zutela opioa lantzen. Bi iturritatik biltzen zuten dirua:

– Drogak lantzeko eta trafikatzeko sareetatik, haien babesa ematearen truke.

– CIAren eskutik, Myanmar, Thailandia, Kanbodia, Laos eta abarreko armada eta talde armatu komunisten aurka gerrilla-motako borrokari eusteagatik

Vietnamgo porrotaren ostean, iparramerikarrek Asiaren hego-ekialdean oposizio-politika uztea erabaki zuten, eta, ildo horretan, alde egin zuten Myanmarretik, hein batean haiek eragindako arazo larria konpondu gabe. Egoera hartan, drogaren kartel sendoak kokatu ziren herrialdean, guztiak ere goitik behera armatuta eta ezin hobeto antolatuta.

Hori gutxi ez, eta, berriki Afganistandik irtetean gertatu zen bezala, armak eraman gabe joan ziren.

Ezin hobeto ekipatutako kartel horiek egundoko indarra hartu zuten, eta haien lider Khun Sa bere mendean 25.000 kidetik gorako armada izatera iritsi zen. Shan lurraldearen independentzia ere aldarrikatu zuen, narkoestatu bat sortzeko asmoz. Horrek gatazka militar gogorrak eragin zituen. Liskar horiek 1996an amaitu ziren; hain zuzen ere, Gobernu birmaniarrak, aipaturiko Khun Sa buruzagi nagusiaren askapena lortzeko asmoz, Yangon hirian zeukan egoitza partikularrean bizitzeko aukera izango zuela adostu zuenean harekin, mugikortasunaren aldetik inolako mugarik gabe, bilerak egiteko eskubidearekin, eta Estatuaren mendeko zaintza armatuarekin. Estatuak, izan ere, zaintzaren kostua ez ezik, buruzagi hari mantenua eta erosotasunak emateko ardura ere hartu zuen bere gain. Gizon hura 2007an hil zen.

Gaur egun, Myanmar iparraldeko eskualde hori laborategiko droga sintetikoen esperimentaziorako munduko zentro handiena dela jotzen da. Thailandia iparraldean, lo-belarraren laborantzan jardundako eremu mugakidean, opio-ustiategi txiki batzuk baino ez dira geratzen; haietako ekoizpena Gobernuaren kontrolpean dago eta medikuntza-helburuetara bideratzen da soil-soilik.



## HEZKUNTZA-SISTEMA ESKASA ETA SUPERSTIZIOAK

Pobrezia hezkuntza-sistema mugatuan ere islatzen da, erregimen militarren garaian bereziki larriagotua, sekula ez baitzizkioten behar besteko arreta eta zuzkidura eskaini.

Epealdi demokratikoan, hezkuntza-sistema indartzeko ahalegina egin zen. Baina, erreportajeren batean ikusi dudanaren arabera, pandemia zela-eta konfinatu egin behar izan zuten herrialdea; irakaskuntza-zentroak alternatibarik gabe itxi zituzten, zentro horiek ez baitzeukaten jarduteko inolako ahalmenik, ez eta etxe apalek baliabide informatikoak erabiltzeko baliabiderik ere.

Gainera, azken estatu-kolpearen ondoren gatazka-maila handia dagoenez, Gobernuak, lerrok idazten ari naizen unean, oraindik ere itxita dauzka ikastetxe guztiak. Gauzak horrela, 18 hilabete jarraian daramatzate eskolarik gabe.

Horrek indartu egiten du familietan dagoen ohitura edo premia, semeak seminario budisten esku uztekoa eta filosofia edo erlijio zorrotz horretan murgiltzekoa, aurrera egin dezaten.

Ez dezagun ahaztu ezjakintasunak eta prestakuntza-faltak superstizioak sustatzen dituztela.

Hona hemen horietako batzuk:

- Astrologoek edo igarleek egindako abisuen ondorioz, bukatu gabe utzita daude pagoda batzuk; halakoak oraindik ere badaude.
- Garrantzi handia ematen diote jaiotza gertatu den asteko egunari.
  – Gurasoek jaiotza-egunaren arabera jartzen diete izena beren seme-alabei.
- Eskuinaldean kokatuta dagoen bolantea eskuinetik gidatzea superstizio baten emaitza da.
- Duela ez asko, diktadore batek hilabete bakoitzaren 9an sinatzen zituen ediktuak.
- Nat-ak eta horiek arintzeko modua.
- Hiriburu berriaren inaugurazio-data.
- Irudiak aldi bakoitietan ukitu, landu edo «ureztatu» behar dira. Zenbaki bikoitiak okerragoak dira.
- Elefante zuriak.

Orain, altxamendu militarraren aurkako barne-erresistentziaren prozesuan, joera berezi bat ari da gertatzen. Herritarrek, manifestazio baterako deia egiten dutenean, emakume-arropa zintzilikatzen dute protesta-lekuetara doazen bideetan. Izan ere, guztiz errotuta dagoen superstizio baten arabera, oso zorte txarra ematen du emakumeen arroparen azpitik igarotzeak. Horrela, soldadu askok atzera egiten dute matxinatuei eraso egiteko orduan.

## BORTXATZAILEEN BATAILOIA

Duela gutxi izan dut Bortxatzaileen Batailoia delakoaren berri. Aipurik ere egin diot, gainera, Karen herriari buruz hitz egitean. Batailoi horri erreferentzia egiten dioten artikulu eta txostenak badauden arren, hain gogorra izatean, asmakeria baten aurrean nengoela pentsatzen nuen edo pentsatu beharra neukan.

Espainian, besteak beste ABC eta El Mundo egunkariek garatu dute gaia, zeina ACNURen 2006ko eta Amnistia Internazionalaren 2007ko txostenetan jasota dagoen. Gaur egun, azken Estatu-kolpearen ostean, berriro hitz egiten da gaiari buruz.

Wikipediak ere jasotzen du gaia, honela:

*Soldadu-talde birmaniarrak dira, zenbaitetan goi-mailakoak, Myanmarren eta Thailandiaren arteko mugan bizi diren Shan gehiengo etnikoko emakumeak eta neskatoak sistematikoki eta selektiboki bortxatzen dituztenak. Eskuadroi horiek talde etnikoa ikaratzeko, desmoralizatzeko, erreprimitzeko eta kontrolatzeko asmoarekin sortu ziren, baita, azken batean, Thailandia aldera erbesteratzeko ere.*

Ez dut xehetasun gehiagorik emango. Nahi duenak Interneten kontsulta dezake. Soilik erantsi nahi dut azken salaketen arabera gaur egungo Gobernu militarrak rohingyen errepresio-ekintzetara zabaldu duela jardunbide hori, Bangladeshera lekualdatzera behartzeko asmoz.

Ikusten duzuenez, Erdi Aroak errotuta jarraitzen du herrialde honetan.



# 2024ko argazki lehiaketa: irabazleak

**Behin epea amaituta, hauek izan dira bozkatuenak.**

**Sariak Elkartearen urteko bazkarian banatuko dira (2024ko urriak 30)**

22 URRIA, 2024 | **por asojubi**



## LEHEN SARIA



Otoño

## BIGARREN SARIA



Hayedo



## HIRUGARREN SARIA



Tarde de Surf

# hipoteka-gastuengatiko erreklamazioak

## UCE-EHKB-REN ARGIBIDEAK ASOJUBI-RENTZAT HIPOTEKA-GASTUEN ERREKLAMAZIOEI BURUZKOAK EUROPAR BATASUNEKO JUSTIZIA AUZITEGIAK 2024KO APIRILAREN 25EAN EMANDAKO EPAIAREN OSTEAN EUROPEA

18 EKAINA, 2024 **I por asojubi**

### 1. Hipoteka-gastuen ordainketari buruzkoak.

Hipoteka-mailegu bat lortu duen kontsumitzaileak (edo aldatu duenak edo hipoteka-mailegu batean subrogatu denak) hipoteka-maileguaren formalizazio eta izapidetzean (edo hipoteka-maileguaren aldaketan edo subrogazioan) esku hartu duten hirugarrenen (tasatzaile, notario, jabetza-erregistratzaile eta kudeatzailearen) ordainsari eta gastuen ordainketa guztiak bere gain hartu beharko ditu, banketxearen ezarpenaren ondorioz.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarri duenez, hipoteka-maileguaren ondoriozko gastuen banaketa honako irizpide hauen araberakoa izango da:

**a)** Higiezinaren tasazio-gastuak: kreditu-erakundeak jasan behar ditu (salbu eta 2019ko ekainaren 16tik aurrera sinatutako hipoteka-maileguak badira; izan ere, 5/2019 Legea, Higiezinen kreditu-kontratuak arautzen dituena, aplikatuta, kontsumitzaile mailegu-hartzaileari dagozkio gastu horiek).

**b)** Hipoteka-maileguaren eskritura publikoaren ondoriozko notariotza-gastuak: zati berdinetan banatu behar dira mailegu-emailearen eta kontsumitzaile mailegu-hartzailearen artean (salbu eta 2019ko ekainaren 16tik aurrera izenpetutako hipoteka-maileguak badira; izan ere, 5/2019 Legea aplikatuta, finantza-erakundeari dagozkio gastu horiek).

**c)** Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga: mailegu-hartzailearen kargura dira, zerga-araudia aplikatuta.

**d)** Jabetza-erregistroan inskribatzeko gastuak: erakunde mailegu-emaileak hartu behar ditu bere gain, hipoteka-bermea bere alde inskribatu zen eta.

**e)** Gestoria-gastuak: erakunde mailegu-emaileak hartu behar ditu bere gain.

### 2. Hipoteka-gastuak erreklamatzeko akzioa egikaritzeko epeari buruz.

Hipoteka-maileguaren kontratuak ezartzen dion klausula bat aplikatzearen ondorioz, hipoteka-gastu guztiak ordaindu dituen kontsumitzaile mailegu-hartzaileak behar ez bezala ordaindutako gastuak berreskuratzeko akzioak epe bat du, preskripzio-epea izenekoa, eta epe hori bost urtekoa da (Kode Zibilaren 1964.2 artikulua).

### 3. Hipoteka-gastuak erreklamatzeko akzioa preskribatzeko epearen zenbaketari buruz.

Hipoteka-gastuak erreklamatzeko akzioaren preskripzio-epea noiz hasiko den zehaztea izan da erreklamazioak ebatzi behar zituzten epaileen artean eztabaida eta interpretazio judizial gehien eragin dituen gaietako bat.

Horren erakusgarri dira hipoteka-gastuen erreklamazioetan epaileek erabilitako irizpideak: edo hipoteka-maileguaren eskritura publikoaren sinadura-data; edo hipoteka-gastuen ordainketa-data; edo 2015eko abenduaren 23a, Auzitegi Gorenak hipoteka-gastuen klausularen deuseztasuna deklaratu zuen eguna; edo 2017. urtea, orduan eman ziren-eta gizarte-komunikabideetan hipoteka-gastuen erreklamazioei buruzko lehen epaiak; edo 2019ko urtarrilaren 24a, Auzitegi Gorenak hipoteka-gastuak banatzeko irizpideak ezarri zituen eguna.



Arazoa Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak erabaki du, justizia-auzitegiek aplikatu beharreko doktrina ezarri baitu.

### 4. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko apirilaren 25eko epaien ondorioz emandako doktrinari buruz.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, hipoteka-gastuen itzulketa eskatzeko epea noiz hasten den ebazteko, 2024ko apirilaren 25eko epaiak eman ditu, 2024ko urtarrilaren 25eko epaia osatzen dutenak, eta honako doktrina hau ezarri du:

- **preskripzio-epea ezin da hasi** Auzitegi Gorenak hipoteka-gastuen klausulen gehiegikeriari eta hipoteka-gastuen banaketari buruz emandako epaiak eman ziren egunean, ezta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak abusuzko klausulen deuseztasunari buruz emandako epaiak eman ziren egunean ere, kontsumitzaile ertainak ez baitu zertan ezagutu bere estatuko edo Europako jurisprudentzia.
- **preskripzio-epea hasten da zenbatzen** kontsumitzaileak jakiten duenean hipoteka-maileguaren eskritura publikoan agertzen den hipoteka-gastuen klausula abusuzkoa dela, eta abusuzkoa izatearen ondorioz, klausula hori deuseza dela.

Doktrina horren ondorioz, kontsumitzaileak hipoteka-gastuen klausula abusuzkoa dela jakin duela egiaztatzen denean hasiko da zenbatzen erreklamatzeko epea, horrek ematen baitio aukera hipoteka-gastuak erreklamatzeko eta finantza-erakundetik jasotzeko duen eskubidea baliatzeko. Eta, printzipioz, hipoteka-maileguan sartutako hipoteka-gastuen klausula, abusuzkoa izateagatik, deusez edo **baliogabea dela deklaratzen duen epaia irmo bihurtzen den egunean ezagutzen** ditu kontsumitzaileak bere eskubideak, eta orduan ezagutzen ditu bete-betean hipoteka-gastuen klausularen gehiegikeriaren ondorioak, besteak beste, gastuak berreskuratzea dagokiola.

Beraz, une horretatik aurrera, kontsumitzaileek beren demandak aurkeztu eta jarri ahal izango dituzte hipoteka-gastuen klausula deusez deklaratzeko eta bidegabe ordaindutako zenbatekoak itzultzeko deklarazio judiziala eskatzeko, hipoteka-mailegua noiz formalizatu zen alde batera utzita; izan ere, kontsumitzaileak epaia lortzen duen egunean hasiko da kopurua erreklamatzeko akzioaren preskripzioa.

Hala ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko apirilaren 25eko epaietan adierazi duenez, erakunde mailegu-emaileak badu ahalmena frogatzeko kontsumitzaileak klausula horren abusuzko izaeraren berri bazuela edo izan zezakeela, deuseztzat jotzen duen epai bat eman aurretik, baldin eta, horretarako, kontsumitzaile horrekiko harremanei buruzko froga zehatzak aurkezten baditu. Kasu honetan, epaileak erabakiko du, kontsumitzaile erreklamatzailearen inguruabarrak eta aurkeztutako frogak baloratuta, noiz hasten den kontsumitzaile horrentzat hipoteka-gastuak erreklamatzeko akzioaren epea.

acuerdo -UC

# entrevista con
# Ana de la UCE




30 urria, 2024 **I por asojubi**

Laster lau urte beteko dira Asojubibbk erakundeak eta Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunak (EHKB) hitzarmena sinatu zutela.

Gero eta afiliatu gehiagok erabiltzen dute emaitza bikainak ematen dituen zerbitzu hori.

Urtean hirutan, EHKBk kolaborazio bat bidaltzen digu aholkularitza orokorra emanez, eta gure blogean argitaratzen dugu.

Oraingo honetan, egoitza aldatu berri dutela-eta, egokia iruditu zaigu bai EHKB eta bai Ana, bertako idazkari nagusia, sakontasun handiagoz ezagutzea.

Horregatik, bulego berri dotoreetan elkarturik, honako elkarrizketa hau izan dugu:

**ASOJUBI:** Lehenik eta behin, zorionak egoitza berri honengatik. Zoragarria da. Zalantzarik gabe, ederki islatzen ditu EHKB egiten ari den lan ona eta izan duen hazkundea.

**ANA:** Eskerrik asko zorionengatik. Argi dago aurreko egoitza txikia geratu zitzaigula. Langile bakoitzak bere espazioa izateko leku bat behar genuen.

Orain, pertsona gehiagori eman diezaiokegu arreta aldi berean, toki bereizietan, kontsumitzailearen pribatutasuna mantenduz.

Aldaketa honen premian geunden.

**ASOJUBI:** Ia lau urte igaro dira gure arteko akordioa sinatu genuenetik. Gure kolektiboari dagokionez, merezi izan duela iruditzen zaigu. Eta zuen aldetik? Zer nabarmenduko zenuke?

**ANA:** Oxala askoz gehiago balira. Egia esan, oro har kolektibo lasai eta atsegina da Asojubi, eta enpatia-maila zabala du gure lanarekiko.

Asojubik argi dauka irabazi-asmorik gabeko elkarte bat garela eta bertan lan egiten dugunok baliabide-ahalmen muga-

tua dugula, baina jo eta ke aritzen garela lanean, guztienganana iritsi ahal izateko. Asojubik badaki hori.

**ASOJUBI:** Kontsumitzaile naizen aldetik, iruditzen zait gero eta zailtasun handiagoak dauzkagula gure eskubideak defendatzeko. Dirudienez, multinazionalen domeinua, zerbitzuak edo ondasunak Internet bidez erostea eta bururatzen zaigun guztia arriskutsua izan daitekeen bilakaera bat izaten ari da. Esaguzu zergatik den garrantzitsua EHKB bezalako erakundeak egotea.

**ANA:** Kontsumitzaileen defentsa gure gaur egungo bizimodura eta kontsumo-modu berrietara egokitzen ari da. Kontua da ezinezkoa dela arauak bizitza aldatzen den abiadura berean egokitzea.

Horregatik, gure lana funtsezkoa da kontsumitzailea etengabe mugitzen ari den prozesu horretan guztian laguntzeko, informazioa emateaz gain kontsumitzailea prestatzeko eta bere eskubideak defendatzeko.

Nire ustez, uneotan kontsumitzailea beharrezkoak diren bitarteko guztiekin ahalduntzea da garrantzitsuena, produktu edo zerbitzu bat kontratatzeko orduan erabaki optimo eta lagungarriak hartu ahal izan ditzan.

Oso ahalduntze zuzenarekin, prestakuntza eraginkor, xume eta praktikoarekin.

Nire iritzian, herritarrak informatzeko modua ez da garaiotan egokia izaten ari. Hainbeste informazio daukagunez, gaininformatuta gaude. Azkenean, alde guztietatik jasotzen dugunez informazioa, nahasi egiten dugu dena, eta nork bere ondorioak ateratzen ditu.  Eta ondorio horiek, askotan, ez dira zuzenak izaten.

Eta horri jauzi digitala, produktuak eta zerbitzuak erosteko modu berriak, ordainketa-plataforma berriak, gure harremanetako presentzialtasun eza eta abar erantsiz gero, kontsumitzailea askoz kalteberagoa bihurtzen da. Engainatzen erraza den kontsumitzailea, edo, besterik gabe, pixkanaka-pixkanaka baztertzen doana.

Eta horretarako dago EHKB; hots, gaur egungo kontsumitzailearen kalteberatasun hori zaintzen saiatzeko.

**ASOJUBI:** Bankaren mundutik datozen erretiratuek osatzen dute gure elkartea. Konta iezaguzu zein diren sektore horretako gorabehera ohikoenak.

**ANA:** Egia da bankaren mundutik zatoztenez, kezka gehien eragiten dizkizueten gaiak banketxeekin lotutakoak direla: bidegabeko komisioak, BGAEak, hipoteka-gastuen itzulketa… Erreklamatzen dituzuen beste gai batzuen artean, bidaia konbinatuak, etxe-aseguruaren parteak eta, logikoki, autoen kartelaren gaia daude.

**ASOJUBI:** Mintza gaitezen orain zuei buruz. Azal iezaguzu nolakoa izan den EHKBren bilakaera.

**ANA:** Atsegin handiz jakinarazten dizuet EHKBk 40 urte beteko dituela 2025eko martxoaren 20an. EHKB 1984an jaio zen, koltzak kaltetutako guztiei laguntzeko asmoz.

Gaur egun, Euskadiko kontsumitzaileen elkarterik zaharrena da. Oso une txarrak igaro ditugu, irauteko zailtasun handiekin. Elkarte-mugimenduak eragozpen ugari izan ditu Euskadin, eta Administrazioak oso baztertuta zeukan kontsumoaren gaia. Gaur egun, egoera desberdina da. Administrazioak, orain, babestu egiten du gure lana, eta nabaritu egiten da.

Euskadiko batzorde aholku-emaile guztietan gaude, kontsumitzailearen interesak babestuz. Eta gure hitzak oihartzuna du.

Azken urteotan, EHKB hazten joan da, kontsumitzailearen problematika hazten joan den bezala. Markatzen zaigun erritmora egokitzen joaten gara, atsedenik hartu gabe.

**ASOJUBI:** Zuri buruz ere zertxobait gehiago jakin nahiko genuke.

**ANA:** Tira, pertsonalki apur bat ezagutzen nauzuenok badakizue gerlari bat naizela. Asko gustatzen zait nire lana, eta, egia esan, oso harro nago inguruan dudan jendeaz.

Orain, Bizkaian, lankide berri bat daukagu. Buru-belarri aritzen da lanean eta bikain ebazten ditu arazoak. Horrek erraztu egiten du talde-lana eta dena biribilago joaten ari zaigu.

Bide batez, kontatuko dizuet EHKB Espainiako kontsumitzaileen konfederazio baten barruan sartu dela, ConsumES izenekoan. Hasiera-hasieratik, Euskadik Kantabriako, Galiziako, Kataluniako, Gaztela eta Leóngo, Valentziako Erkidegoko eta Aragoiko elkarteekin batera sortu du.

Euskadiren eskuetan dago oraintxe konfederazioko Idazkaritza, eta ni naiz kargu hori betetzen ari dena.

Eta ni pozik, beste autonomia-erkidego batzuetako lankideek horretarako bozkatu nautela ikusita. Txukun aritzea espero dut, egia esan.

**ASOJUBI:** Gogora iezazkiguzu zuen helbide berria, harremanetarako moduak eta kontsumoari buruzko webgune interesgarria.

**ANA:** Rodríguez Arias kalearen 23.ean gaude, 2. solairuan, 15. sailean.

Harremanetarako gainerako datu guztiak lehengo berdinak dira; ez dira aldatu.

**ASOJUBI:** Mila esker eskainitako denboragatik.

**ANA:** Eskerrik asko zuei, guztiagatik. Askoz urte gehiago eman ditzagula elkarrekin!

acuerdo

# XIMÉNEZ-SPÍNOLA UPATEGIEN ESKAINTZA




Hemos recibido una oferta de las bodegas XIMÉNEZ-SPÍNOLA para nuestros asociados; la única bodega especializada en la uva Pedro Ximénez del marco de Jerez. La bodega tiene 4 estilos:

- Vino tranquilo
- Vino dulce
- Brandy
- Vinagre

La producción no supera las 150.000 botellas al año. Todo son viñedos propios (32 ha), buscando la calidad a través de la versatilidad y elegancia de un solo varietal.

**Las características de la oferta son las siguientes**

- **Precio final calculado aplicando el 10% de descuento sobre la tarifa más económica que se pueda encontrar en Internet.**
- **IVA incluido en el precio.**
- **Gastos de envío incluidos en el precio.**
- **Oferta válida hasta fin de 2024.**

Algunos productos de los ofertados aparecen como agotados en la **web de la bodega** porque sólo les queda una pequeña cantidad de ellos, para **comercializaciones exclusivas.**

Para acceder a la promoción y a la compra, los socios pueden contactar en las direcciones y teléfonos que os hemos indicado mediante correo electrónico.

Para identificarse y poder optar a la tarifa especial, los socios deberán manifestar que poseen el **código promocional** que también habéis recibido en el correo enviado.

**Nota importante: LA COMPRA NO PUEDE REALIZARSE A TRAVÉS DEL CANAL WEB DE LA BODEGA** porque, como se ha mencionado anteriormente, algunos productos ofertados aparecen como agotados.






# BTRAVELen ARABERA BERRITZEA (2025)

Btravel & CATAI

21 urtarrila 2024 | **por asojubi**

Btravel y esta Asociación hemos renovado el acuerdo en vigor para su aplicación a lo largo del 2024 y 2025 en los siguientes términos:

**DESCUENTOS**

5% de descuento directo para programas de paquetes mayoristas generales del mercado. Exceptuando el programa propio de +55.

7% de descuento directo en paquetes de viajes mayoristas propios (Catai, Travelplan, Quelonea, Jolidey, Viva Tours, Special Tours)

**CLIENTES PREMIUM**

Los afiliados y afiliadas a esta Asociación estamos considerados como **CLIENTES PREMIUM** de Btravel lo cual supone contar con un nivel superior más personal e individualizado de atención, asesoría, diseño y contenido de cada viaje.

NOTA: las oficinas Premium de BTravel no atienden IMSERSO. Quien lo desee se puede poner en contacto con Gema (tfno: 944272220) de la oficina de BTravel en Bilbao, calle Dr. Areilza junto a Gran Vía.

**Datos de contacto:**
María Rodrigo Manso
Teléfono: 946 83 52 93 – mj.rodrigo@btravel.com
Gran Vía Don Diego López de Haro, 56 – 48011 Bilbao.
premium.btravel.com
Oferta válida hasta el 31.12.2025




# laranjen eta mandarinen eskaintza

**(2024-2025)**

16 urria, 2024 | **por asojubi**

La empresa Caprichos de la Naturaleza, S.L. nos ha hecho llegar nuevamente una oferta especial para nuestros asociados referida a sus naranjas (desde finales de octubre) y mandarinas (ya disponibles) consistente en un descuento del **8% sobre su precio de venta por internet.**

Se trata de productos de la zona de Cullera (Valencia) de gran calidad que pasan del árbol a nuestra casa en 48 horas.

Las compras se pueden hacer a través de su página https://caprichosdelanaturaleza.es/ incluyendo el código promocional que os hemos enviado por correo electrónico (el mismo que el año pasado).

Queremos resaltar que, dada la influencia del coste del transporte, el precio para pedidos de 15 kilos o más, tanto en naranjas y mandarinas como en la combinación de ambas, es mucho más interesante. Además, al ser producto natural, sin tratamientos ni aditivos, es de más fácil y larga su conservación.

«Para que nuestra fruta llegue a tu casa recién cogida del árbol, realizamos las entregas de las cajas de naranjas y mandarinas los martes, miércoles, jueves y viernes. **Los gastos de envío son gratuitos en la península.** En caso de realizar tu pedido fuera de España o en las islas, escríbenos un email (pedidos@caprichosdelanaturaleza.es) o llámanos por teléfono (601 052 415) y calcularemos el coste del envío.»



**Bbk-ko jubilatuen eta pentsiodunen elkartea**

Principe kalea, 5. dpto. 505
48001 BILBO
Tel. 94 425 57 96
asojubibbk@gmail.com
www.asojubibbk.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral